

AURKIBIDEA

Uztailaren 27an, URTEAN ZEHARREKO XVII. IGANDEA	4
Uztailaren 31an, LOIOLAKO SAN IGNAZIO	12
Abuztuaren 3an, URTEAN ZEHARREKO XVIII. IGANDEA	27
Abuztuaren 10ean, URTEAN ZEHARREKO XIX. IGANDEA	34
Abuztuaren 15ean, MARIA BIRJINAREN ZERURATZEA	41
Abuztuaren 17an, URTEAN ZEHARREKO XX. IGANDEA	48
Abuztuaren 24an, URTEAN ZEHARREKO XXI. IGANDEA	55
Abuztuaren 31n, URTEAN ZEHARREKO XXII. IGANDEA.....	61
Irailaren 7an, URTEAN ZEHARREKO XXIII. IGANDEA.....	68
Irailaren 14an, URTEAN ZEHARREKO XXIV. IGANDEA.....	75
Irailaren 21ean, URTEAN ZEHARREKO XXV. IGANDEA	82

Uztailaren 27an

URTEAN ZEHARREKO XVII. IGANDEA

Agurra

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Jaunaren izenean bildu gara, bere izenean otoitza egiteko. Entzungo dugun Jainkoaren Hitzak lagunduko digu gure otoitza kristau-otoitza bihurtzen. Eukaristiako Ogiak indartuko gaitu, Hitz horren baitan bizitzen.

Damu-otoitza

Jesu Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egin digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitezela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

—Jesus Jauna, Zu zara gure bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zu zara gure egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zu zara gure bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Oi Jainko, Zugan uste on dutenen babesaren zarena,
Zu gabe ez da ezer sendorik, ez ezer santurik;
erakutsiezaguzu zeure erruki handia,
Zu gidari eta erakusle zaitugula,
zuhurtasunez balia gaitezen lurreko gauzez,
eta oraintxedanik betiko ondasunei itsatsirik bizi gaitezen.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R.* Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Ez dagoenetik guztia sortzen du Jainkoak. Maitasun eza maitasun, pobrezia aberastasun... gure eskuzabaltasuna eta bere asmoaren onarpena nahi ditu. Gurekin eraiki nahi du biziaren Erreinua.

Lehenengo irakurgaia (*Has 18, 20-32*)

Hasiera liburutik

Egun haietan, Jaunak esan zuen: «Izugarria da Sodomaren eta Gomorraren kontrako salakuntza, eta larriegia hiri horien bekatua. Salakuntza hori egia ala gezurra den ikusi behar dut».

Gizasemeek handik atera eta Sodomarantz jo zuten; Abraham, berriz, Jaunaren aurrean zutik gelditu zen. Hurbildurik, esan zion Abrahamek: «Egiaz, errugabea ere galdu egin behar ote duzu errudunarekin batean? Beharbada, badira berrogeita hamar errugabe hirian. Horiek ere galdu egin behar ote dituzu? Ez ote diozu barkatuko hiriari berrogeita hamar errugabe horiengatik? Utikan zugandik horrelakorik egitea, errugabea errudunarekin batera hilaraztea! Nola jokatu duzu, bada, berdin batarekin zein bestearekin? Zuk ez horrelakorik! Munduaren epaileak ez ote du zuzenbiderik egingo?»

Jaunak erantzun zion: «Sodomako hiri barruan berrogeita hamar errugabe aurkitzen baditut, hiri osoari barkatuko diot haiengatik».

Eta Abrahamek berriz: «Ausardia da benetan hauts eta errauts naizen honek neure Jaunari hitz egitea. Gerta daiteke berrogeita hamarrera iristeko bost falta izatea; hiri osoa suntsituko ote duzu bost horiengatik?» «Ez –erantzun zion Jaunak–, ez dut suntsituko, hirian berrogeita bost aurkitzen baditut». Oraindik ere Abrahamek: «Gerta

daiteke berrogei besterik ez izatea». Jaunak erantzun: «Ba, ez dut suntsituko berrogei horiengatik».

Orduan, Abrahamek esan zion: «Ez zaitez haserretu, ene Jauna, hizketan jarraitzen badut. Gerta daiteke hogeita hamar besterik ez izatea». «Ez dut suntsituko, hogeita hamar aurkitzen baditut», erantzun zion Jaunak. Abrahamek berriro: «Badakit ausartegia naizela; baina gerta daiteke hogei besterik ez izatea». Jaunak erantzun: «Ez dut suntsituko hogei horiengatik». Eta Abrahamek: «Ez haserretu, Jauna, beste behin mintzatzen banatzaizu. Gerta daiteke hamar besterik ez izatea». Jaunak erantzun zion: «Ez dut suntsituko hamar horiengatik».

Erantzun-salmoa (Sal 138 [137], 1-2a. 2b-3. 6-7. 8)

Es - ke - rrak Jau - na - ri, A - ren mai - ta - su - na be -

ti - ko - a bait da.

- ✧. Eskerrak ematen dizkizut, Jauna, bihotz-⁻¹bihotzez,
nire hitzak entzun dittuzulako;
kantuz goratzen zaitut aingeruen aurrean,
eta zure tenplu santurantz begira ahuspezten naiz. ✧.
- ✧. Eskerrak ematen dizkiot zure izenari, ‘
zure maitasun eta leialtasunagatik,
paregabeak egin baitituzu ‘
zeure izena eta promesa.
Dei egin nizunean, erantzun zenidan,
kemena bizkortu bihotzean. ✧.

- ✠. Gorena da, bai, Jauna, '
baina umilari dio begiratzen;
harroari, berriz, urrutitik antzematen.
Larrialdian aurkitzean, '
bizia babesten didazu etsaien amorruaren aurrean,
eskua luzatu eta salbatzen nauzu. R̃.
- ✠. Dena egingo du Jaunak nire alde.
Jauna, zure maitasuna betikoa,
ez utzi bertan behera zeure eskuen lana! R̃.

Bigarren irakurgaia (Kol 2, 12-14)

San Paulo Apostoluak Kolosarrei egindako gutunetik

Senideok: Bataioaren bidez, Kristorekin hobiratuak izan zarete, eta piztu ere, harengan piztu zarete, hura hildakoen artetik piztu zuen Jainkoaren ahalmenean sinetsiz.

Garai batean, hilda zeundeten zeuen bekatuengatik eta erdaingabeak izateagatik; baina Jainkoak biziara egin zaituzte Kristorekin batera, bekatu guztiak barkaturik. Gu gaitzesten gintuen epai-agiria suntsitu egin du eta, gurutzean josiz, deuseztatu.

Aleluia (Erm 8, 15)



- ✠. Seme-alaba egiten zaituzten Espiritua hartu duzue,
eta Espirituaren bidez «Abba!», hau da, «Aita!»,
hots egiten diogu Jainkoari. R̃.

Ebanjelioa (Lk 11, 1-13)

Homiliarako argibideak

0.- “JAUNA, IRAKATS IEZAGUZU”

- Udara partean egon arren, ederki datorkigu gaurko ebanjelioak proposatzen digun katekesia, kristau izateko ikasbidea. Ikasleak nahiz kristau elkarteak otoitz egiten ikasi behar du beti eta gaurko ikasleetako batek Jesusi zuzentzen dion eskaera gaurkoan gugana dator: “Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten”.
- Ebanjelioetan etengabe ageri da Jesusek sarritan otoitzerako hartzen dituela tarteak eta horretarako gune aproposak. Jesus bera da guretzat otoitzerako adibidea. Gaurkoan ere, Jesus otoitzean ari zela egiten diote eskaera.
- Ikasleak ezin du ikasi otoitzerako maisurik aurrean ez badu, aurretik norbaitek bidea egiten ez badu, gurekin batera otoitzaren bide gozoa erakusten ez badigu. Erakutsi eta irakatsi, biak batera dira otoitz eskola guztien abiapuntu.
- Otoitz egiten erakustea egarri duenari edaten ematea bezala da eta honetarako Jesusek jartzen duen bidea, erakusten digun bidea hain da apala eta gertukoa Jaun Goikoarekin sortzen den elkarriketa hurbila dela Jesusek irakatsitako otoitza.

1.- JAUNGOIKOA, AITA

- Erritoak alde batera utzi eta aurrez aurreko otoitza irakatsiko die Jesusek ikasleei. Otoitz hau konfiantzan oinarritzen da eta norbanakoari konpromisora bultzatzen dio. Ez da, nolabait esateko, zauden tokian utziko zaituen otoitza. Bihotza mugiarazten duen Jaunak pertsona mugitzen du, barrutik kanpora.
- Juduen otoitz ofiziala tenpluan egiten zen, Jainkoaren gune nagusian. Baina, Jesusek gizon-emakume eta Jainkoaren arteko harremanean erabateko aldaketa sartuko du. Jainkoa ordurarte ez

bezala gugana hurbilduko du eta gizaki eta Jainkoaren arteko bertikaltasun hori zeharka begira jarriko du Jaungoikoari Aita deituz, Aita delako.

- Ez da hau behin-behineko baimena, atea itxi baino lehen bizkor ibili beharreko baimena. Jesusek Jainkoari Aita deitzeko hesia, atea betirako ireki du. Atea hau konfiantzaren, maitasun eta errukiaren ate eskuzabala da.

2.- GURE AITA

- Zazpi lerro dituen otoitz labur bezain sakona aspaldi ikasi genuen eta egunero berritu eta sakontzea tokatzen zaigu. Sakramentuak ahaztu edota kristau elkartearekin etena egin duenak beti izango du hortxe, bere bihotzeko memorian, Gure Aita otoitzaren oparia.
- Estualdian edota eskerrak emateko hasi eta amaitzen den otoitza dugu Jesusek irakatsitakoa. Fededunok, nahiz fedea atzeko poltsikoan geratu zaienak ere ez dute ahaztu txikitan ikasitako otoitza.
- Otoitz honek Jaunari begira jartzen gaitu, baina inguruan dugun lagun hurkoa ahaztu gabe. Gizakiaren inperfekzioaren otoitz perfektua da Gure Aita, etengabe esan eta sakondu beharreko zazpi lerroko ituna.
- Jabetu gabe egunean zehar burua eta bihotza trastez eta eginbeharrez betetzen zaigu eta Jaunarekin, lagun hurkoarekin eta norberarekin soseguan topo egiteko tarteak har dezagun. Beti izango dugu zerbait egiteko, zerbait premiazkoagoa.
- Egungo gizartea presaka dabil, zenbaitetan noraezean. Eta otoitzak bihotzaren taupada lasaitzen du, Jaunarekin elkarriketan jartzen gaitu, hizketarako prest baino hobeto, entzuteko gertu. Jesus Jaunak irakatsi ziguna ezin ahaztu. Jarrai dezagun ikasten!

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, eska dezagun Espiritu Santuaren indarra, Berak lagun diezagun munduko beharren alde otoitiz egiten.

- Eska diezaiogun errukizko Jainkoari, Kristo ezagutzen hasi eta bataioko grazia hartu nahi dutenen alde, beraien haurrak bataiatzeko prestatzen direnen gurasoen alde.
- Eska diezaiogun Jaunari gure herriaren alde eta bertan bizi garen guztion alde, baita munduko herri eta nazio guztien alde ere, bakea eta bizimodu hobea izan ditzagun.
- Eska diezaiogun Jaunari mundu zabalean pertsegituak diren kristauen alde eta beraien pertsegitzaileen alde, izan dezatela begirunearen bihotz-berria.
- Eska diezaiogun Jaunari hemen bilduak gaudenon alde eta otoitzean gogoan ditugun guztien alde, fedean gorde gaitzan eta bere Semearen erreinuan bildu.

Entzuiozu, Aita on, zeure herriari eta egizu Zure Semeak erakutsi zigun seme-alaben otoitza uler dezagula; emaguzu Zure Espiritua, Jesusek agertu zuen konfiantza berarekin Zuri dei eginez Zure maitasunaren esperientzian hazi gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna, zure esku zabaletik hartuta
ekarri dizkizugun eskaintzak;
egizu, misterio santu hauek,
zure graziaren indar eragileaz
santu egin dezatela oraingo gure bizitza
eta gida gaitzatela betiko zorionera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Eukaristiako sakramentua hartu dugu, Jauna,
zure Semearen nekaldi-piztueren betiko oroigarri;
berak neurrigabeko maitasunez eman digun dohain hau
izan dakigula salbamenerako.

Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R̃*. Amen.

Uztailaren 31n

LOIOLAKO SAN IGNAZIO*

Agurra

Gugatik gizon egin zen Jesu Kristo gure Jaunaren errukia izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Senideok, poz ederra gaur eskaintzen zaiguna: gure senide eta herritar Ignazio Loiolakoa santutasun argitan ikusten dugu. Festaburu eder honetan, beraz, badugu zer eskatua eta zer eskertua. Jaunak eman digun dohaina, egiazko eskakizun bihurtzen baitzaigu. Ignazio dohaina dugu, eta deia dugu. San Ignazioren fede berean bat egin dezagun eta egigun festa. Jaso dezagun festara Ignazio zaindaritzat aitortzen duen gure herriaren bihotza ere.

Damu-otoitza

Loiolako Ignazio bezala, gu ere Jainkoaren aintza eta gizakientzat ona izatera deituak gaude. Aitor dezagun isilune eginez, Jainkoarengandik askotan urruntzen garela, eta onar dezagun beragandik datorkigula salbamena.

—Jesus Jauna, hilen arteko lehen-semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatuaren eta heriotzaren garailea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure piztuera eta bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

* Ikus gaztelaniazko lagungarria 21. orrialdean

Otoitza

Oi Jainko, Loiolako Ignazio santua eman zenion Elizari
zure izenaren aintza gero eta gehiago zabaltzeko;
egizu, hura lagun eta etsenplu dugula,
lur honetan borroka eginik,
irits dezagula garaipen-koraa harekin batean zeruan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoa maitatzeak zoriona dakar. Harengandik urruntzeak, berriz,
zorigaitza eta hondamendia. San Ignaziok hartu zuen bidea argia da:
dena, egiten den guztia, beti Jaunaren aintzarako egitea. Guretzat ere
jokalege ederra!

Lehenengo irakurgaia (*Dt* 30, 15-20)

Deuteronomioa liburutik

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Begira, bizia eta zoriona,
heriotza eta zorigaitza jartzen dizkizut gaur aurrean. Aditzen
badituzu gaur nik ematen dizkizudan Jaunaren zeure Jainkoaren
aginduak, Jauna zeure Jainkoa maitatuz, haren bidean ibiliz eta
haren agindu, lege eta erabakiak betez, biziko zara eta ugarituko eta
bedeinkatuko zaitu Jaunak zeure Jainkoak, jabetzan hartzera zoazen
lurraldean.

Baina zure bihotza okertzen bada, aditzen ez baduzu eta jainko
arrotzen aurrean ahuspeztu eta haiek gurtzeko tentazioari amore
ematen badiozu, gaur iragartzen dizut erabat hondatuko zarela, eta
ez duzula luzaro iraungo, Jordanez beste aldean jabetzan hartzera
zoazen lurraldean.

Zeru-lurak deitzen ditut gaur zure aurka testigu: bizia eta heriotza, bedeinkazioa eta madarikazioa jartzen dizkizut aurrean. Zuk eta zure ondorengoez bizi nahi baduzue, aukera ezazu bizia, Jauna zeure Jainkoa maitatuz, haren esana adituz eta hari lotuz. Horretan dago zure bizia eta hortik datorkizu Jaunak zure guraso Abrahami, Isaaki eta Jakobi zin eginez agindutako lurraldean luzaro bizitzeko ahalbidea».

Erantzun-salmoa (Sal 1, 1-2. 3. 4 eta 6)



Bai do - ha - tsu gau ta e - gun Jau - na -
ren le - ge - a haus - nar - tzen du - e - na.

- ✠. Zorionekoa gaiztoen aholkuari jarraitzen ez diona, ‘
bekatarien bidean ez dabilena,
ezta lotsagabeen biltzarrean esertzen ere;
baizik eta Jaunaren legean atsegin duena,
haren legea gau eta egun hausnartzen duena. R.
- ✠. Ur-ertzean landaturiko zuhaitzaren antzekokoa da:
ematen du bere garaian fruitua,
eta ez zaio historik ihartzen;
egiten duen guztia ongi zaio ateratzen. R.
- ✠. Ez horrela gaiztoak, ez horrela,
haizeak daraman galautsaren antzekoak dira.
Jaunak zaintzen du zintzoen bidea;
gaiztoena, berriz, galdu egiten da. R.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 10, 31–11, 1)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuela, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei gauza guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, guztiak salba daitezen.

Izan zaitezte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

Aleluia (Mt 5, 12a)

℣. Poztu zaitezte eta alaitu,
handia izango baita zuen saria zeruetan. ℟.

Ebanjelioa (Lk 9, 18-26)

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Jesus otoitzean bakarrik ari zela, ikasleak hurbildu zitzaizkion, eta Jesusek galdetu zien: «Nor naizela dio jendeak?» Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek, berriz, antzinako profetaren bat piztu dela». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Pedrok erantzun zion: «Jainkoaren Mesias».

Jesusek inori ez esateko agindu zien zorrotz. Ete esan zien, gainera, ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztuko da».

Eta hau esan zien denei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galdu egingo du; baina bere bizia Nigatik galtzen duenak salbatu egingo du». Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?

Beraz, norbait Nitaz eta nire mezuaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatu egingo da hartaz, bere aintzaz eta Aitaren eta aingeru santuen aintzaz beterik etorriko denean».

Homiliarako argibideak

0.- ONDOKO ATEKO SANTUA

- Frantzisko aita santuak sarritan hitz egin zigun “ondoko ateko santuei” buruz. Honekin adierazi nahi zuen santutasuna ez dela bakarrik figura historikoentzat edo aparteko pertsonentzat, baizik eta jende arruntaren eguneroko bizitzan presente dauden santu horiek.
- Euskaldunok ezin dugu hurbilago izan mundu zabalean Jesusen Berri Ona zabaldu zuen Loiolako San Ignazioren espiritua. Loiolako San Ignaziorekin batera esan dezakegu gure etxe ondoko santua dugula gaur goraki ospatzen dugun festa handia, gure zaindari handia.
- Gure herrietan kutuna dugu Loiolako etxea utzi eta santutasunaren bidea hasi zuen Ignazioren historia eta ikasbidea. Hain hurbila denak Jesusengana hurbiltzeko deia egin eta berritzen digu gaur bertan.

1.- BIDEA EGINEZ

- Duela egun gutxi ospatu genuen Santiago apostoluaren festa. Mundu osoan ezaguna da Orreagan hasi eta Santiagoko Obradoiro plazan amaitzen den ibilbidea.

- Bide inizatikoa da, ikasteko bidea eta gutako askok egin dugun bizitzaren bidearen ikurra. Oinez egiten diren bide guztietan bezala, bidaia-lagunak arretaz aukeratu behar dira eta, motxilan eraman behar dena bezain garrantzitsua, bidaiarako beharrezkoa ez dena bereizi behar da. Egun gutxitan alferrikako gauzak eramaten badituzu, pisua arintzeko deseatzten egongo zara.
- Bide guztiek bezala, helburua eta egin beharreko ibilbidea markatu behar dira.
- Ez da hain ezaguna Ignazio Loiolakoak 1522an Loiolatik Manresara egin zuen bidea, Ignaziotar Bidea. 27 etapa dira, bi herriak banatzen dituzten 650 km-ak zeharkatzen ditu. Bide hau euskal lurretatik abiatzen da eta Errioxa, Nafarroa eta Aragoitik igarotzen da, Manresara iristen den arte.

2.- HERRIAREN ZAINDARIA

- Loiolako San Ignazio, Gipuzkoako eta Bizkaiko zaindaria da, denok lortu nahi dugun santutasunerako eredu edo erreferentzia kristaua dela gogorarazten digu.
- San Ignazioren jatorrizko izena Iñigo Loiolakoa zen, baina berak aldatu zuen Ignazio (Ignatius, latinez), unibertsalagoa izateko. Iñigo Loiolakoa Azpeitian jaio zela 1491an. Jesusen Lagundiak 1.000 kide baino gehiago eta 100 etxe zituen (gehienak eskolak eta prestakuntza-zentroak) 1556ko uztailaren 31n Erroman hil zen unean.
- San Ignaziok Lukasen ebanjelioak gaur egun jorratzen duen galdera espiritualaren etengabeko kezka izan zuen: "*Eta zuek, nor naizela diozue?*". Jesusen jarraipeneko funtsezko galdera honi erantzuteko, Loiolako Iñigok Manresan amaitu ez zuen bidea egin zuen, baina Iñigo, Ignazio Loiolakoaren eta bere Ariketa Espiritualekin bokaziozko bide bat aurkitu zuten hainbat belaunaldiren kristau nortasuna betirako definitu zuen.

- San Ignazioaren eta Jesusen Lagundiaren lema "*denean maitatu eta zerbitzatu*" da. Benetan maitasunak eta karitateak gidatzen dute Jesusen urratse atzetik goazenon bizitza. Zuzen, batzuetan eta beste batzuetan lortu ezinik, Jesusek gonbidatzen gaituen bezala, eguneroko gurutzera hartu behar dugu eta bizitzaren bidea duintasunez, apaltasunez eta behartsuenen aldeko zerbitzuan lanean segi.
- Horretarako moldea, gaur elizak proposatzen digun eredua, gogoratzen dugun Loiolako San Inazio da. Zorritzarreko bala hark hankan zauritu zuen, baina bere arima eta bizitza betirako ukitua geratu zen.
- Ignazio da gure patroia handia!

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: Loiolako Ignazio santua otoitz lagun harturik, egin diezazkiogun eskariak Jainkoari, Jesusen izenean.

- Elizaren alde: ebanjelioaren argitan, edonon eta nonahi, gizakiaren ongia eta Jainkoaren aintzarik handiena bilatu dezan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Donostiako gure Elizbarrutiaren alde: san Ignazioaren antzera, gure elizbarrutiko elkarteetan, beraien biziak Jainkoari eskainiz eta elizaren alde lan eginez biziko diren gazte eta gizon-emakumeak izan ditzagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Sinesgabe eta urrutiratu guztien alde: federik gabe edota Elizatik urrun bizi direnek, gure etsenplu eta Jainkoaren graziaz, Jesu Kristo salbatzaile bakartzat aitortuz, egiazko Fedea ezagutu dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.

—Gure parrokiaren alde eta hemen bildurik gaudenon alde: Loiolako Ignazio santuaren antzera, gauza guztietan Jainkoaren aintzarik handiena, Elizaren ona eta gure senideen zoriona bilatu ditzagun. Eska diezaiogun Jaunari.

Entzun, Aita, gure eskari apalak eta gida itzazu gure pausoak; Loiolako Ignazio santuaren antzera gogoz zerbitzatzen jakin dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx.* Amen.

Oparigaien gainekoa

Jainko Jauna,
izan dakizkizula atsegin
Loiolako Ignazio santuaren ospakizun honetan
ekarri dizkizugun eskaintzak;
eta santutasun guztiaren iturri den sakramentu honek
egin gaitzala gu ere santu egian.
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx.* Amen.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen,
bidezko eta salbagarri,
nonahi eta beti guk Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiereko horri.

San Ignaziok irakatsitako bideari jarraitzera dei egiten baitiguzu,
uste oneko bihotz otzanez
Espirituaren ahotsa entzun dezagun;
gure bizitza Kristorenarekin bat egitera
eta, bertute guztien eredu denez,
beraren antzeko izatera bultzatzen gaituzu:

beraren bidez aukeratu gaituzu, Aita errukitsu horrek,
zure dohainei erantzunez
fedearen bidean aurrera egin dezagun,
itxaropenak sendo irauten lagun diezagun
eta maitasunak onbidean ibiltzeko indar gaitzan.

Horregatik, orain eta betieran
santu eta aingeru guztiekin batean
goraki abesten dizugu,
poz betean kantari:

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, Loiolako Ignazio santuaren jai honetan
Zuri eskerrak emateko eskaini dizugun gorespen-opariak
eraman gaitzala betieran zure handitasun aintzatsua gorestera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

31 de julio

SAN IGNACIO DE LOIOLA

Saludo

La misericordia de nuestro Señor Jesucristo, que se hizo hombre por nosotros, esté con todos vosotros.

Monición de entrada

Hermanos, una alegría preciosa la que hoy se nos ofrece: vemos a nuestro hermano y ciudadano Ignacio de Loiola en clara santidad. En esta hermosa solemnidad tenemos, pues, algo que pedir y algo que agradecer. El don que nos ha dado el Señor se nos convierte en verdadera exigencia. Tenemos el don de Ignacio, y tenemos la llamada a nuestro caminar. Unámonos en la misma fe de San Ignacio y hagamos fiesta. Agradezcamos también hoy con corazón de pueblo que reconoce a Ignacio como patrón y protector.

Acto penitencial

Como Ignacio de Loiola, también nosotros somos llamados a buscar la gloria de Dios y el bien de los hermanos. Confesemos en un momento de silencio que a menudo nos alejamos de Dios, y aceptemos la salvación que nos viene de Él.

—Tú, el Primogénito de entre los muertos: Señor, ten piedad.

—Tú, el vencedor del pecado y de la muerte: Cristo, ten piedad.

—Tú, la resurrección y la vida: Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna. *Rx*. Amen.

Oración colecta

Oh, Dios, que has suscitado en tu Iglesia
a san Ignacio de Loyola para propagar la mayor gloria de tu nombre;
concédenos que, combatiendo en la tierra
con su protección y su ejemplo,
merezamos ser coronados con él en el cielo.
Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos. *Rx*. Amen.

Liturgia de la Palabra

Amar a Dios es fuente de felicidad. Alejarnos de Él nos lleva a la desdicha y el abismo. El camino tomado por San Ignacio es claro: hacerlo todo, absolutamente todo, para gloria de Dios. ¡Una buena lección para nosotros!

Primera lectura (*Dt 30, 15-20*)

Lectura del libro del Deuteronomio

Moisés habló al pueblo, diciendo: «Mira: hoy pongo delante de ti la vida y el bien, la muerte y el mal. Pues yo te mando hoy amar al Señor, tu Dios, seguir sus caminos, observar sus preceptos, mandatos y decretos, y así vivirás y crecerás y el Señor, tu Dios, te bendecirá en la tierra donde vas a entrar para poseerla.

Pero, si tu corazón se aparta y no escuchas, si te dejas arrastrar y te postras ante otros dioses y les sirves, yo os declaro hoy que moriréis sin remedio; no duraréis mucho en la tierra adonde tú vas a entrar para tomarla en posesión una vez pasado el Jordán.

Hoy cito como testigos contra vosotros al cielo y a la tierra. Pongo delante de ti la vida y la muerte, la bendición y la maldición. Elige la vida, para que viváis tú y tu descendencia, amando al Señor, tu Dios, escuchando su voz, adhiriéndote a él, pues él es tu vida y tus muchos años en la tierra que juró dar a tus padres, Abrahán, Isaac y Jacob».

Salmo Responsorial (*Sal 1, 1-2. 3. 4 eta 6*)**℟. Su gozo es la ley del Señor.**

- ℣. Dichoso el hombre que no sigue el consejo de los impíos,
ni entra por la senda de los pecadores,
ni se sienta en la reunión de los cínicos;
sino que su gozo es la ley del Señor. ℟.
- ℣. Será como un árbol
plantado al borde de la acequia: da fruto en su sazón
y no se marchitan sus hojas;
y cuanto emprende tiene buen fin. ℟.
- ℣. No así los impíos, no así;
serán paja que arrebatara el viento.
Porque el Señor protege el camino de los justos,
pero el camino de los impíos acaba mal. ℟.

Segunda lectura (*1 Cor 10, 31–11, 1*)

Lectura de la primera carta del apóstol san Pablo a los Corintios

Hermanos: Ya comáis, ya bebáis o hagáis lo que hagáis, hacedlo todo para gloria de Dios. No deis motivo de escándalo ni a judíos, ni a griegos, ni a la Iglesia de Dios; como yo, que procuro contentar en todo a todos, no buscando mi propia ventaja, sino la de la mayoría, para que se salven.

Sed imitadores míos como yo lo soy de Cristo.

Aleluya (*Mt 5, 12a*)

- ℣. Alegraos y regocijaos,
porque vuestra recompensa será grande en el cielo. ℟.

Evangelio (Lc 9, 18-26)

✠ Lectura del santo Evangelio según san Lucas

Una vez que Jesús estaba orando solo, lo acompañaban sus discípulos y les preguntó: «¿Quién dice la gente que soy yo?» Ellos contestaron: «Unos, que Juan el Bautista; otros, que Elías, otros dicen que ha resucitado uno de los antiguos profetas». Él les preguntó: «Y vosotros, ¿quién decís que soy yo?» Pedro respondió: «El Mesías de Dios».

Él les prohibió terminantemente decírselo a nadie, porque decía: «El Hijo del hombre tiene que padecer mucho, ser desechado por los ancianos, sumos sacerdotes y escribas, ser ejecutado y resucitar al tercer día».

Entonces decía a todos: «Si alguno quiere venir en pos de mí, que se niegue a sí mismo, tome su cruz cada día y me siga. Pues el que quiera salvar su vida la perderá; pero el que pierda su vida por mi causa la salvará. ¿De qué le sirve a uno ganar el mundo entero si se pierde o se arruina a sí mismo?»

Pues si uno se avergüenza de mí y de mis palabras, también el Hijo del hombre se avergonzará de él cuando venga en su gloria, en la del Padre y en la de los ángeles santos.

Oración de los fieles

Hermanos: Por intercesión de san Ignacio de Loyola, dirijamos nuestras oraciones a Dios, en nombre de Jesús.

—Por la Iglesia: para que, a la luz del Evangelio, en toda circunstancia y lugar, busque el bien de la humanidad y la mayor gloria de Dios. Roguemos al Señor.

- Por nuestra diócesis de San Sebastián: para que en las comunidades cristianas de nuestra diócesis surjan jóvenes, hombres y mujeres que como san Ignacio trabajen y entreguen sus vidas a Dios y a la Iglesia. Roguemos al Señor.
- Por los que no creen: para que las personas que viven sin fe o alejadas de la Iglesia, descubran con nuestro ejemplo y la gracia de Dios la Fe verdadera, y reconozcan a Jesucristo como el único Salvador. Roguemos al Señor.
- Por nuestra parroquia y por todos los que estamos aquí reunidos: para que, a imagen de san Ignacio de Loyola, busquemos en todas las cosas la mayor gloria de Dios, el bien de la Iglesia, y el bienestar nuestros hermanos. Roguemos al Señor.

Escucha, Señor, nuestras humildes oraciones y guía nuestros pasos; para que, a imagen de san Ignacio de Loyola, sepamos servirte con valentía. Por Jesucristo nuestro Señor. *Rx*. Amen.

Oración sobre las ofrendas

Que te agraden, Señor Dios, las ofrendas que te presentamos en la solemnidad de san Ignacio de Loyola, concédenos que estos divinos misterios, que estableciste como fuente de toda santificación, nos santifiquen también en la verdad. Por Jesucristo, nuestro Señor. *Rx*. Amen.

Prefacio

En verdad es justo y necesario,
es nuestro deber y salvación
darte gracias siempre y en todo lugar,
Señor, Padre Santo, Dios todopoderoso y eterno.

Tú nos llamas a seguir el camino de san Ignacio,
para que, con corazón dócil y confiado,
escuchemos la voz del Espíritu;
y nos impulsas a conformar nuestra vida con la de Cristo
e imitarle como modelo de todas las virtudes:
por Él, Padre de misericordia, nos has elegido
para que respondiendo a tus dones,
recorramos el camino de la fe,
seamos sostenidos con la ayuda de la esperanza,
y edificados con la fuerza de la caridad.

Por eso, ahora y por toda la eternidad,
unidos al coro de los ángeles,
te cantamos con devoción,
y te aclamamos diciendo:

Oración después de la comunión

Señor, que el sacrificio de alabanza
que te hemos ofrecido para darte gracias,
en honor de san Ignacio de Loiola,
nos conduzca a la eterna glorificación de tu majestad.
Por Jesucristo, nuestro Señor. *Rx*. Amen.

Abuztuaren 3an

URTEAN ZEHARREKO XVIII. IGANDEA

Agurra

Biziaren ogia dugun Jesus Maisuaren onginahia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Gure fedea ospatzera bildu gara Eukaristian. Fedea, berritasuna da, aske egiten gaituena, gure lasaitasunetik ekintzara eta bizipenera garamatzana. Hori da Ebanjelioaren arabera ondasunak biltzea; ondasun horiek jartzen gaituzte egiazko zorionaren bidean.

Damu-otoitza

Aitor dezagun bekatari garela eta eska diezaiogun apalik barkamena zeruetako Aitari, guk ere geure senideei bihotzez barkatuz.

—Jesus Jauna, behartsuen alde zaudena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, indargabeen ba**bes**leku zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatarien itxaropen zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Zatozkie lagun, Jauna, zeure zerbitzariei
eta ager iezaiezu beti zeure bihotz ona otoizka ari zaizkizunei;
eta egile eta gidari aitortzen baitzaituzte,
biziberri ezazu etengabe eta zaindu
Zeuk egina den mundu hau.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean

Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Zertarako jarri gure itxaropena balio ez duten gauzetan. Pertsonen zor zaien begirunea, Jainkoak gurekin egiten duen ekintza harrigarria eta gizadiaren zoriona eta bizitza duina dira arduratu behar gaituztenak... gainontzekoa axalkeria da.

Lehenengo irakurgaia (Koh 1, 2; 2, 21-23)

Kohelet liburutik

Huskeria hutsa –dio Koheletek–,
huskeria hutsa, dena huskeria da.

Izan ere, gertatu ohi da batek buruz, egoki eta trebetasunez lan egin ondoren, ezer egin ez duenari dena utzi beharra. Hau ere huskeria da eta oker handia. Zer gelditzen zaio gizakiari eguzkipean egin duen hainbeste lan eta eginahaletatik? Egunero atsekabea besterik ez du, eta bere lanetan nekea; gauez ere ez du atsedetik haren bihotzak. Hau ere huskeria da.

Erantzun-salmoa (Sal 90 [89], 3-4. 5-6. 12-13. 14 eta 17)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a
ta mai - ta - su - na.

- ✠. Gizakia hautsera itzularazten duzu,
esanez: «Itzuli lehenera, gizakiok».
Bai, mila urte zure begietan ‘
atzo igaro zen eguna adina,
gualdi bat adina. ✠.

- ℣. Hor daramatzazu gizakiak, ‘
ametsa bezla dira;
ernetzen dira goizean belarra bezala;
goizean erne eta loratzen baita,
arratsaldean zimeldu eta ihartzen. ℞.
- ℣. Irakatsiezaguzu geure egunen kontua eramaten,
zuhurtasunaren muinaz jabetu gaitezen.
Itzul zakizkigu, Jauna! Noiz arte?
Erruki zaitez zeure zerbitzariez. ℞.
- ℣. Ase gaitzazu goizero zeure maitasunaz, ‘
poztu gaitezen eta zoriontsu izan geure egun guztietan.
Betor gugana Jaunaren, gure Jainkoaren, gozotasuna
eta sendo beza hark gure eskuen lana;
sendo dezala, bai, gure lana. ℞.

Bigarren irakurgaia (Kol/ 3, 1-5. 9-11)

San Paulo Apostoluak Kolosarrei egindako gutunetik

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean eseria. Irrika itzazue goiko gauzak, eta ez lurrekoak, hilik baitzaudete, eta zuen bizia Kristorekin dago Jainkoagan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, zuek ere aintzatsu agertuko zarete harekin batean.

Hilaraz itzazue, beraz, zeuen baitan mundu honen araberrak jarrerak: lizunkeria, lohikeria, irritsak eta grina txarrak eta idolatria den diru-gosea. Ez esan elkarri gezurrik, izaera zaharra eta honen araberrak jokabidea erantzi eta berria jantzi duzuenez gero; izaki berri zarete, beraren egile den Jainkoaren irudira eraberrituz doana, ezaguera beteagora iristeko. Hor ez dago honezkero ez greziarrik eta ez judurik, ez erdaingurik eta ez erdaingaberik, ez kulturadunik eta ez kulturagaberik, ez esklaborik eta ez librerik, baizik eta Kristo da guztia, eta guztiengan bizi da.

Aleluia (*Mt 5, 3*)

∕. Zorionekoak gogoz behartsu direnak,
berena baitute Jainkoaren erreinua. ∕.

Ebanjelioa (*Lk 1, 13-21*)**Homiliarako argibideak****0.- PILATZEAK EZ DU EZERTARAKO BALIO**

- Gaurko ebanjelioaren parabola Lukas ebanjelariak bakarrik kontatzen du eta, bi mila urte igaro arren, izugarrizko gaurkotasuna du guretzat. Argi eta garbi esanda, pilatzeak ez du ezertarako balio gaur gauean bertan zer gertatuko zaidan ez badakit.
- Horregatik, gaurko ebanjelioak bi lerro ditu aztergai: lehenengoa, gure bizitza Jaunaren eskuetan dago eta alferrik dira gure ahaleginak bihar zer gertatuko zaigun ez badakigu. Bigarren, duguna partekatzen ikasi behar dugu eta ematearen poza ikasi. Gordetzeak, diru-gose izateak, pilatzeak ez du ezertarako balio dudana konpartitzen ez badut ikasi.
- Gizartean aberatsek arrakasta handia izan arren, Jaunaren begien aurrean ez daude ondo ikusita, ez dute Jaunaren errukiaren eta eskuzabaltasunaren bidea jarraitzean.
- Berekoikeriak ez du zoriontasuna ziurtatzen. Frantzisko aita santuak behin baino gehiagotan hitz egin zuen honen inguruan, gaurko ebanjelioaren harian, esaldi esanguratsuak mahai gainean jarri: "hil-oihalak poltsikorik ez du" edota "ez dut inoiz ikusi etxez aldatzeko kamioirik hileta-prozesio baten atzean"

1.- JAUNAREN ESKUETAN GAUDE

- Jesusen predikuaren ezaugarrietako bat aberatsen bihotz gogorra salatzea izan zen, hauen gogortasuna agerian jartzea.
- Bere ondasunez gozatzen bizi denaren arriskua anaia pobreak ahaztea da eta, honekin batera, Jainkoari bizkarra ematea. Ondo asko dakigu diruak zer ematen duen: boterea, ospea, sona, ziurtasuna, ongizatea. Baina, era berea, ustekabeko morrontzak sortzen ditu, diruaren edota lanaren esklabuak bihurtzen.
- Jesusek ikuspuntua ez da gure ondasunak nondik atera ditugun ikuskatzea edota zertan gastatzen dugun gure dirua, baizik duguna eta garena partekatzeiko indarra eskatzea, premian dagoen lagun hurkoari begirada jartzen laguntzea, gure bihotza zabaldu eta gure poltsikoa ireki premia denean.
- Nabaria da ipar eta hegoaldeko herrien arteko desoreka, 2000 urte ondoren etengabe jarraitzen duen iskanbila, pobreen artean gerrak sortaraziz usteko konponbiderako armak salduz aberasten diren gizon, enpresa edota herrialdeak. Ez dago fededun izan beharrik hau ozenki salatzeke. Baina, kristauok ozen esan behar dugu hau ez dela Jainkoak nahiko lukeena.

2.- ESKUZABAL BIZI

- Bataiotik gara profeta, errege eta apaiz. Profetak Jesusen aldarria egiten jarraitu behar du. Dagokionean salatuz eta Jesusen Berri Onaren maitasuna zabalduz.
- Fededunak egunero eskertu behar du Jaunak eman digun goizeko eguzkia eta oheratu aurreko esker otoitza. Era berean, apaltasunez onartu behar du, aberats nahiz pobre izan, Jaunaren eskuetan gaudela, berak erabakiko duela noiz eta nola eraman beragana.
- Horrexegatik, harrokeriak alde batera utzi eta apaltasunez bizitzea besterik ez dugu, Jaunaren borondatea egiten saiatu nahi

badugu. Eta, eguneroko bide apal horretan, eskuzabal jokatu, dugunetik partekatu eta, keinu txikiak eginez, mundu honen desoreka berdintzen saiatu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Dei egiogun, senideok, Jainko Aitari eta eska diezaiogun entzun ditzala bihotzez egiten dizkiogun otoitzak.

- Leon Aita Santuaren alde, Fernando gure Gotzainaren alde eta eliz-ardurak dituzten guztien alde: Jaunak bere Hitza zuzen aldarrikatzeko jakinduria eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bere etxetik eta familiatik urruti diren guztien alde, arriskuan bizi diren guztien alde: Jaunak aurrera egiteko behar den kemena eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herri guztietako eta erlijio guztietako gizakien alde: Jaunak bere onginahia agertu eta bere bidetik gida ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure senide hildakoen alde: Jaunak errukiz onar ditzan betiko, bere santuen artean. Eska diezaiogun Jaunari.

Gauza guztien hasiera eta amaiera zaren Jauna, Zure Seme Kristoren bidez Zure erreinuan parte eman diguzu; egizu, lurrean bizi garen artean ez ditzagula ondasunak maita gauza guztien gainetik, baizik eta ez dezagula ahaztu Zure seme-alaba izatea dela gure aberastasuna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Oparigaien gainekoa

Zaude gure alde, Jauna,
egitzazu santu ogi-ardo hauek
eta, espirituzko opari hau onarturik,
egin gaitzazu gu ere Zeuretzat betiko opari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Zaindu ezazu beti, Jauna,
zeruko ogiaz janaritu eta biziberritu duzun zeure herria,
eta, guretzat duzun etengabeko arduraz,
egin gaitzazu betiko bizirako gai.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Abuztuaren 10ean

URTEAN ZEHARREKO XIX. IGANDEA

Agurra

Gure sinesmena ospatzeko Jainkoaren izenean bildurik dagoen kristau-batzar honetan, Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Itxaropena dugunok, bildu egin gara, lehenengo kristauak biltzen ziren moduan. Orduan, itxaropena zen kristauen jarrera nagusia: «zatoz, Jesus Jauna» otoitz egiten zuten. Gure jarrera ere izan dadila, haiena bezala itxaropentsua.

Damu-otoitza

Eukaristi ospakizun honen hasieran, eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, gure bakea zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guretzat ogi egin zinena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bizia ematen diguzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. *℟*. Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa, Espiritu Santuak irakatsirik

Zuri Aita esateko eskubidea eman diguzu;

sendotu gure bihotzetan zure seme-alabatzako espiritua,

agindu diguzun bizi betean sar gaitzen.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean

Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Isiltasunean, eguneroko gauza apaletan, biziaren xumetasunean aurkitzen da Jainkoa. Konfiantzaz bizitzea eta hainbat loturatatik askatzea ezinbestekoa da horretarako.

Lehenengo irakurgaia (*Jkd* 18, 6-9)

Jakinduria liburutik

Aldez aurretik eman zitzaien gure arbasoei pazko-gauaren berri, sinetsi zituzten promesak, sendoak zirela ikustean, adore izan zezaten. Zintzoentzat salbamen eta etsaientzat hondamendi izan zen gau haren zain egon zen zure herria. Izan ere, egintza bat beraz gure etsaiak zigortu zenituen eta gu ohorez bete gintuzun, Zeuregana deituz.

Zintzoen seme-alaba fededunek sakrifizioak eskaintzen zituzten ezkutuan, eta denek, aho batez, lege santu hau ezarri zuten: aldi onetan nahiz txarretan elkarturik egongo zirela zintzoak. Eta orduan jadanik, kantatzen zituzten arbasoen gorazarreak.

Erantzun-salmoa (*Sal* 33 [32], 1 eta 12. 18-19. 20 eta 22)



Bai do-ha - tsu, Jau - nak be-re oi-nor - de hau-ta -



tu du - en he- rri - a.



- ✠. Egin poz-oihu, zintzook, **jaunari**,
zuzenei dagokie, izan ere, hura **gorestea**.
Zorionekoa, Jauna Jainko duen **nazioa**,
hark bere ondareztat hautatu du**en** herria. ✠.



℣. Jauna arduratzen da begirune diotenez,
haren maitasunean itxaroten dutenez,
haiek heriotzatik libratzeko
eta gosetean bizirik gordetzeko. ℞.

℣. Guk Jaunagan dugu esperantza,
bera dugu laguntzaile eta babesle.
Betor gurekin, Jauna, zure maitasuna,
Zugan baitugu jarria itxaropena. ℞.

Bigarren irakurgaia (*Heb 11, 1-2. 8-19 edota laburrago 11, 1-2. 8-12*)

Hebrearrei egindako gutunetik

Senideok: Itxaroten dugunaren oinarria da sinesmena, ikusten ez direnen froga. Sinesmenagatik onetsi zituen Jainkoak gure arbasoak.

Sinesmenari esker, Abraham, Jainkoaren deiari erantzunez, ondaretzat hartu behar zuen lurraldera abiatu zen, nora zihoan jakin gabe. Sinesmenaren indarrez atzerritar gisa bizi izan zen agindutako lurraldean; oihal-etxoletan bizi izan zen, Jainkoaren agintzari bera hartu zuten Isaak eta Jakob bezalaxe; eta hori, oinarri sendoa duen hiria, arkitekto eta egile Jainkoa bera duen hiria, itxaron zuelako.

Sinesmenari esker hartu zuen ondorengoa ekartzeko indarra, bere emazte Sara agorra izan eta berak ere sasoia joana zuen arren, agintzaria egin ziona fidagarria zela sinetsi baitzuen. Horrela, gizon bakarragandik –eta berau horretarako hilik zegoela–, ondorengoak sortu ziren, zeruko izarrak bezain ugari eta itsasbazterreko hondarrak bezain kontaezin.

[Horiek guztiak Jainkoak hitzemandako ondasunak eskuratu gabe hil ziren; baina sinesmenaren argitan urrutira ikusi eta agurtu egin zituzten, horrela lur honetan erromes eta arrotz zirela aitortuz; izan ere, honela mintzo direnek garbi adierazten dute aberriaren bila dabilatzala. Utzi zuten lurraldea gogoan izan balute, izango zuten egokiera hara itzultzeko. Baina lur hobea zuten irrika, zerukoa. Horregatik, Jainkoak ez du «haien Jainko» deitua izateko lotsarik, hiri bat ere prestatu baitzien.

Sinesmenari esker, opari eskaini zuen Abrahamek Isaak, Jainkoak probatu zuenean. Bera, agintzariak hartu zituena, prest zegoen bere seme bakarra eskaintzeko, nahiz eta seme horretaz esana zion Jainkoak: «Isaaken bidez izango dituzu ondorengoak». Uste bizia zuen Abrahamek Jainkoa gai dela hildakoak pizteko ere; horregatik, semea berreskuratzea Jainkoaren ahalmenaren ezaugarri gertatu zitzaion.]

Aleluia (Mt 42a. 44)



✠. Zaudte erne,
gutxien uste duzuen orduan
etorriko zaizue-eta Gizonaren Semea. ✠.

Ebanjelioa (Lk 12, 32-48 edota laburrago 12, 35-40)

Homiliarako argibideak

0.- PREST

- Aurreko igandeko ebanjelioaren jarraipena dugu gaurkoa. Ez zen, antza, nahikoa aurreko igandeko Jesusen aholkua eta gaurkoan erregua errepikatzen zaigu. Argi ibili, prest egon, adi egon: “zaudete prest”.
- Jesusek udara parte honetan mahai gainean jartzen digun oharpena ez da beldurra sartzeko, azken orduan azterketa prestatzeko ikasten jartzen den ikaslearen ardura sortarazteko. Hain justu, kontrakoa da Jesusen aholkua: konfiantzaz betetako hitzak dira Jesusenak. Ez gaude bakarrik bizitzako ibilbide honetan, gurekin ibiltari Jauna dugu eta bide laguntza honek fededunarengan oinarritzko konfiantza sortu behar du.
- Estu eta larri, itota edota diru gosez ez dugu bizitzako ibilbide honetaz gozatuko. Jesusek, gaurkoan ere, aske eta zuzen hitz egiten digu eta ebanjelioaren erradikaltasuna adierazten: “saldu zeuen ondasuna eta eman limosna”.
- Hemengoaren hauskortasuna denok ezagutzen dugu. Eta kontrajarrian, Jesusek zeruan hondatuko ez diren ondasunak bilatzea gonbidatzen digu. Prest eta kriseiluak piztuta.

1.- KONFIANTZA

- “Ez da kriseilua pizten lakaripean jartzeko”, esan zigun Jesusek. Ez dugu fededunen bidea hartu mesfidantzan bizitzeko, ez ginen bataiatuak izan jaso genuen grazia armairu zuloan ezkutatzeko.
- Giza bihotza da pertsonaren izatearen muina eta hori da zaindu behar dena. Hortxe pilatu behar genituzke baliozko ondasunak. Altxor horretan sitsak ez du zereginik.
- Ardura eta konfiantza batera doaz eman zaiguna erabat gurea ez dela onartzen badugu, eman zaiguna maileguan jaso dugula.

- Hau aintzakotzat hartzeko moduko eskaera da. Badaezpada Pedrok Jesusi galdetzen dio “hau guretzat ala denentzat” ote den.

2.- ARTALDETXOA GARA

- Jesus ikasleei zuzentzen zaie samurtasunez, maitasunez. Halakoa da gurekiko maitasuna “artaldetxo” deitzen diela ikasle taldeei, artalde txiki bat garela geroz eta argiago garela jabetzen garenean.
- Garai hauetan nabarmena da gure kristau elkarte “artaldetxoa” gehiago garela artalde handia baino. Hauxe da une aproposa leial eta zentzuz jokatzeko, arduraz ibiltzeko, umiltasunez lan egiteko. Nagusia Jauna da eta gu morroiak besterik ez gara.
- Administarrari txarrak eta onak nonahi daude. Elizan, politikan edota enpresetan. Ez gara bizitzako martxa honetan honetaz eskandalizatuko. Baina, jator eta zintzo jokatzeko tokatzen zaigu, arduraz. Nagusikeriaz lan egiten duenak, ingurukoak gaizki tratatzen baditu, goitik behera begiratzen duenak bere ezina besterik ez du adierazten. Ez du Jaunak bere eskuetan utzi duenaren ardura eramateko kargua merezi.
- Jesusek ohartarazten duen zigorra harrokeria eta arduragabearen noizbait iritsiko zaion patua da, “asko eman zitzaionari, asko eskatuko zaiolako”.
- Pedrok egindako galdera zuzena izan zen, beste zenbaitetan bezala. Eta gaurkoan ere argi geratzen zaigu: bai, gaurkoa ere guretzat esan du Jesus Jaunak!

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz Kristori, hitz eman zuen bezala entzun dezan Bere izenean bildu garenon otoitza.

—Bakearen alde, Elizen arteko batasunaren alde, gu guztion zorianaren alde.

- Behartsuen alde dihardutenen alde, adinekoei laguntzen dietenen alde, ahulak zaintzen dituztenen alde.
- Nekaturik eta ezinean daudenen alde, arriskuan direnen alde, loturik bizi direnen alde.
- Gure alde otoitz egiten dutenen alde, guk otoitzean gogoan ditugunen alde, gure hildakoen betiko atsedenaren alde.

Entzun gure otoitzak, Jauna, eta egizu Abrahamen antzera gu ere bizi gaitzela bihotz sutsuz lur honetan; itxaron dezagula Zure Semearen etorrera, zerbitzaria erne aurkitzen duen nagusiak bezala aurki gaitzan eta zeruko mahaian Kristok berak gu onar gaitzan. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx*. Amen.

Oparigaien gainekoa

Hartu bihotz onez, Jauna,
zeure Elizaren dohain hauek,
guk eskaintzeko Zeuk maitasunez emanak;
egin itzazu, zeure indarrez,
gure salbamenerako sakramentu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Hartu dugun sakramentu honek salba gaitzala, Jauna,
eta sendotu zure egiaren argitan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Abuztuaren 15ean

MARIA BIRJINA DOHATSUAREN ZERURATZEA

Agurra

Maria Birjina, Bere Ama, zerura jaso duen Kristoren bakea eta maitasuna izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Ama Mariaren zerura jasotzea ospatzen dugu Abuztuaren erdi honetan. Denontzat hitz eman zuena Amarengan bete du Kristo Jaunak eta horrek gure itxaropena sendotzen du, gure fedea indartzen. Ospa dezagun bihotzez festaburu eder hau.

Damu-otoitza

Isilune bat egin dezagun, eta sar gaitezen geure baitan, Aitaren errukia gozatzeko.

—Jesus Jauna, zeure Ama zure ondora eraman nahi izan duzuna. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zeure burua eskaini diguzuna. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Aitaren eskuinaldetik Ama Mariaren aintza erakusten diguzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeruko ospera eraman zenuen, gorputz eta arima,
Maria Birjina Sortzez Garbia, zeure Semearen Ama;
egizu, goiko ondasunak bila ditzagula beti,
zeruko ospean parte izan dezagun harekin.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitzak gizakion bokazioa, egitekoa argitzen du. Mariak bete-betea bereganatu zuen Jainkoaren Hitza, entzule leial izanez, Jaunaren nahia betez eta gauza guztietan bihotz garbiko izanez. Geu ere, Hitzaren entzule apal egin gaitezen, Jainkoaren nahia betetzen ikasteko.

Lehenengo irakurgaia (*Ap 11, 19a; 12, 1-6a. 10ab*)

Apokalipsia liburutik

Ireki zen Jainkoaren santutegia zeruan eta haren itun-kutxa agertu zen santutegian. Seinale handia agertu zen zeruan: emakume bat eguzkiz jantzia, ilargia oinazpian eta hamabi izarreko koroa buruan. Haurdun zegoen eta, erdiminez eta hargintzako oinazez, garrasika ari zen.

Beste seinale bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituen, eta buruetan koroa bana. Bere isatsez zeruko izarren herena arrastaka hartu eta lurrera jaurti zuen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko.

Emakumeak semea izan zuen, herri guztiak burdinazko makilaz gobernatuko dituen; hartu zuten semea eta Jainkoaren tronuraino eramanez. Emakumeak, berriz, basamortura egin zuen ihes; han leku bat prestatua zion Jainkoak.

Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten: «Orain etorri dira gure Jainkoaren salbamena, indarra eta erregetza, eta beraren Mesiasen agintea».

Erantzun-salmoa (*Sal* 45 [44], 10. 11-12. 16)

- ✠. Errege-alabak dituzu zeure aukeratuen artean,
zure eskuinean erregina, urre finez apaindua. ✠.
- ✠. Entzun, alaba, eta ikusi, makur ezazu belarria,
ahaztu zeure herriaz eta aitaren etxeaz. ✠.
- ✠. Zoraturik dago erregea zure edertasunaz;
bera duzu jaun, egiozu ahuspez agur. ✠.
- ✠. Pozik eta alai daramatzate,
eta erregearen jauregira sartzen dira. ✠.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 15, 20-27a)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten elkartasunagatik denak itzuliko dira bizira.

Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitua denez; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok errege izan behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini

arte. Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da. Izan ere, «gauza guztiak haren menpean jarri ditu Jainkoak».

Aleluia



℣. Zerura jaso izan da Maria Birjina;
pozik daude aingeruak. ℟.

Ebanjelioa (Lk 1, 39-56)

Homiliarako argibideak

0.- MARIA, BIDELAGUN

- Uzta garaian Maria dugu berriro festarako gai. Mariak kristau ikasbidea zein den erakusten digu ama bezala, arreba bezala, Jainkoaren alaba bezala. Baietz esan zuen emakume hark erakusten digu hitzez eta egitez Jesusen ikasleone bidea.
- Eta bide honen adierazgarria gaurko ebanjelioaren lehen hitzak dira: “Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen”.
- Gaurkoan bere lehengusu Elisabeten etxera joan da bisitan. Beste batean Mariak Jesusen misio hasierako lehen urratsa suspertuko du. Azkenerarte, denak ospa egin zuten arren, bere seme Jesus erahil zuten gurutzearen oinean han jarraitu zuen. Ikasleen arteko lotura egin zuen Espiritu Santuaren etorrera arte.
- Onean eta txarrean, ama beti hor, leial eta gertu. Maria da fededunontzat bidelagun.

1.- HERRIETAN FESTA

- Gure parrokia askotako buru gaurko festa handiaren Maria Birjina Dohatsuaren Zeruratzea da. Udara partean egon arren, opor giroan ibili arren, zeruko Amari otoitz egin eta eskerrak emateko tarte ederra hartzen dugu gaurkoan.
- Gure herrietan ere festa egiten da gaurko egunez. Eta hain maitea dugun festa honetan gure Amak egin duen zeruko bidearen partaide izango garela ospatzen dugu, heriotzarekin ez dela dena amaitzen, Piztu denaren senide garela. Mariaren zeruratzea fededunok aldarrikatzen dugun esperantzaren pozaren oihua da, gurea ez dela etsipena eta Mariari eman zitzaion zeruratzerako grazia ere guk ere jasoko dugula.
- Ondo asko dakigu oinarrian fedez ospatzen ditugun festak askorentzat bizkarra emanda ospatzen dituztela, inongo erreferentzia erlijiosorik gabe. Andre Mariaren festa ospatu bai, baina bere fede eta giza aldarrikapena oroitu gabe.
- Amaren gaurko festak emakumearen duintasunari begiratzen dio eta Eliza osoak batera bere eskuzabaltasuna eskertzen du.

2.- “BEDEINKATUA ZU!”

- Han edo hemen gizateri osoak sumatzen duen esperantza ziurtatzen da Mariarengan. Guztiontzat izango da etorkizuna, ez gaude etsipenera kondenatuak, pertsona batek munduaren noraeza aldatu dezake.
- Mariak halako sakontasunez bereganatu zuen Jaunari emandako baietza, bere bizitza osoa Jaunaren aginduetara egokitu zela. Jesusen nahiz Mariaren zeruratzek guztiontzat opari izango dugun zerua dugu etorkizunean.
- Kontua da hangoaren zain, hementxe hasten direla iraultza txikiak, aldaketa nagusiak. Jainkoak gutako bakoitzarentzat duen

egitasmoa sakon ezagutzeko aurrerantz pauso bat ematen duten pertsonak behar ditugu.

- Eta gaurko adibide bizia, leiala, gertukoa, bidelaguna Maria dugu. Elisabeten antzera esan dezakegu guk ere: "Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko?". Ama etorri zaigu bisitan eta bere bisitaldiak dena argitzen du, kristauon bidea erakusten digu, jarraitu beharreko bidea adierazten digu.
- Amak hartzen du hitza eta gure esker onaren Magnificat kanta abeste du ozen, kantari, arin. Mariak Jauna handiesten du eta gure herrietako fededun guztiok gure Amaren oparia eskertzen dugu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, zuzen diezazkiogun Jaunari gure otoitzak, Maria Birjina zeruratu zuela ospatzen dugun egun honetan:

- Elizaren seme-alaba guztiek, Jainkoaren Amarekin bat eginik, Jaunaren handitasuna goretsi eta harengan poztu daitezen.
- Jaunaren errukia bere fededunengana iritsi dadin eta gizaldi guztiak poztu daitezen, Jaunak Mariarengan gauza handiak egin dituelako.
- Jaunak, bere besoaren indarrez gora jaso ditzan ezerezak, ondasunez bete ditzan gose direnak eta lagun biezaio bere herriari gure arbasoei hitz eman bezala.
- Bere Ama Erregina koroatu duen Kristo Jaunak, guri ere eman diezagun egun batean, munduaren hasieratik prestaturik duen erreinua.

Jainko Jauna, Zure Semearen Ama egin zenuen Maria Birjina; entzun gure otoitzak eta egizu, haren laguntzaz, parte izan dezagula egun batean betiereko zorionean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠.
Amen.

Oparigaien gainekoa

Igo bedi Zugana, Jauna, jaieraz egiten ari garen eskaintza,
eta, Maria Birjina guztia dohatsua zeruetara
jasoaren otoitzari esker,
egizu, gure bihotzak, goi-maitasunaren garrez suturik,
jo dezala etengabe Zugana.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Sakramentu salbagarria hartu dugu, Jauna;
egizu, Maria Birjina dohatsua
zeruetara jasoaren otoitzari esker,
piztueraren aintzara irits gaitezela.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Abuztuaren 17an

URTEAN ZEHARREKO XX. IGANDEA

Agurra

Jainko Aitaren eta Jesu Kristo gure Salbatzailearen grazia, errukia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Eukaristiarako bildu gara. Jainkoaren Erreinua eraikitzea bide erraza ez, baizik eta bide malkartsua dela esango zaigu gaur. Har dezagun batzen gaituena, izan gaitezen leialak bereizterainoko indarra duen eginkizunarekin.

Damu-otoitza

Eska diezaiogun orain, Kristori, errukia eta barkamena:

—Jesus Jauna, gugatik gurutzean hil zinena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, heriotza garaituz Aitak piztua. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, beti gure alde Aitaren ondoan zaudena. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. *Rx*. Amen.

Otoitza

Oi Jainko,
ondasun ikusezinak dituzu maite zaituztenentzat;
piztu gure bihotzean zeure maitasunaren garra,
Zu gauza guztietan eta gauza guztien gainetik maite izanez,
guk asma ditzakegunak baino handiagoak diren
Zuk agindutako ondasunak irits ditzagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Egia hots egiteak zailtasuna dakar. Fedean eta Jesusen jarraipenean leial izateak, ordea, zorionbidea. Zailtasuna eta zoriona batera doaz, beraz. Entzun dezagun Jaunaren Hitza.

Lehenengo irakurgaia (*Jr 38, 4-6. 8-10*)

Jeremias Profetaren liburutik

Egun haietan, buruzagiek esan zioten erregeari: «Jeremias honek bizia zor du! Bere hitzez, herrian gelditzen diren gudariak eta herritar guztiak adoregabetu besterik ez du egiten. Ez da ari herriaren onerako, kalterako baizik».

Sedekias erregeak erantzun zien: «Zeuen esku duzue! Erregeak ez dezake ezer zuen aurka».

Hartu zuten, beraz, Jeremias eta errege-familiako Melkias printzearen putzuan sartu zuten, sokaz jaitsez. Putzua kartzelako atarian zegoen eta ez zuen urik, lokatza baizik. Jeremias lokatzetan sarturik gelditu zen.

Ebed-Melek jauregitik erregeagana joan zen eta esan zion: «Errege jauna, gaizki jokatu dute gizon horiek Jeremias profetarekin; putzura bota dute, eta goseak hilko da bertan, ez baitago ogirik hirian».

Orduan, agindu hau eman zion erregeak Ebed-Melek etiopiarrari: «Hartu zeurekin hiru gizon eta atera Jeremias profeta putzutik, hil baino lehen».

Erantzun-salmoa (*Sal* 40 [39], 2. 3. 4. 18)

Ez e - gon, Jau - na, ni - gan - dik u - rrun; zu - re - a nau -

zu, za - toz - kit la - gun.

-2

- ✠. Jaunagan nuen jarria itxaropen **guztia**,
makurtu eta entzun du nire **oihua**. ✠.
- ✠. Atera nau hondamen-**putzutik**,
zingira **lohitsutik**;
haitz gainean jarri ditu **nire** oinak,
sendotu ditu nire **urratsak**. ✠.
- ✠. Kantu berria ipini dit ez**painetan**,
gorespen-kanta gure Jainko**arentzat**;
hau ikusiz jende asko ikarat**uko** da,
eta Jaunagan izango du konfi**antza**. ✠.
- ✠. Dohakabe eta behar**tsu** naiz ni,
baina Jauna da nitaz ar**duratzen**.
Zu zaitut laguntzaile eta ask**kat**zaile,
ene Jainko, ez **luza**. ✠.

Bigarren irakurgaia (*Heb* 12, 1-4)

Hebrearren egindako gutunetik

Senideok: Hainbat eta hainbat testiguz inguraturik gaudenez gero, utz dezagun oztopo zaigun guztia eta inguratzen gaituen bekatua, eta ekin diezaiogun etsi gabe aurrean dugun lasterketari. Jar ditzagun begiak sinesmenaren iturri eta betetzaille dugun Jesusengan. Honek ere, itxaro zuen zorionagatik, gurutzean hiltzea onartu zuen, heriotza lotsagarria zela kontuan hartu gabe, eta orain Jainkoaren tronuaren eskuinaldean eseria dago.

Izan ezazue, bada, gogoan bekatarien aldetik halako erasoaldia eraman zuen hura, adorea galdu eta etsi ez dezazuen. Oraindik ez zarete bizia galtzeraino iritsi bekatuaren aurkako zeuen borrokan.

Aleluia (Jn 10, 27)



℣. Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa,
dio Jaunak;
 Nik ezagutzen ditut,
 eta haiek jarraitu egiten didate. ℟.

Ebanjelioa (Lk 12, 49-53)

Homiliarako argibideak

0.- SUA

- Udara garaia lasaitasunerako garaia da, atsedena hartu eta eguneroko arduretatik at egiteko garaia. Horregatik, behar bada, igande honetako ebanjelioa zartako bat bezala iristen zaigula gure atsedena aztoratzeko.

- Norbaitek uste bazuen kristau fedea Jesusen hitz bakezale eta gozoak entzuteko bakarrik zela, gaurkoa justu kontrakoa gertatuko zaio. Jesusen hitzak gehienetan ontasun hitzak izaten dira eta, hortik abiatuz, zenbait kristauak gizarte idiliko bat amesten dute jendearen sufrimenduari bizkarra emanez.
- Baina, Jesusen mezua zenbaitetan, gaurkoan bezala, gogorra, erradikala eta kristauon eginkizunen egunerokoan sartu beharko luke, nahi eta nahi ez.
- Jesus lur honetan itxurazko bake bat jartzea etorri zela pentsatzen duenak, behin eta berriz irakurri beharko luke gaurko ebanjelioaren lehen lerroak. "Bakea ez, banaketa baizik".
- Ohar hau abisu larria bihurtzen zaigu eta, jaso genuen bataioko urarekin batera, sua datorkigu. Lehenengoa, bizitza sortarazteko. Eta sua, berriz, behar den tokian esan eta egin behar dena pizteko.

1.- BAKEA EDO BANAKETA?

- Honek haustura sortuko du. Bakea bilatu nahi duenak barne edota kanpoko zenbait egituren haustura egin beharko da. Egiazko bakean oinarritutako mundu bat eraiki nahi badugu, justizia jorratu nahi badugu gure inguruan edota kanpoan, sua piztu beharko da.
- Zergatik Jesusen Hitzak ez ziren izaten denen gustukoak? Zergatik gurutziltzatu zuten Jesus?
- Jesusen izaera, jokabidea eta hitzak oraindik guregan zartakoa sortzen ez badugu, bere mezua leundu eta gure modura egokitu dugula esan nahi du.
- Uste bazenu Jesusen jarraipenak ez zuela jazarpenik izango, ez gabiltza zuzen. Jesusen mezua, bake mezua da. Baina, ez nolanahiko bakea. Itxurazko akordioen bakeak ez du balio, gerrari eutsi eta behin-behineko bakeak ez du ezertarako balio.

- Bakea, maitasunaren iturritik badator, iturburura joan eta Jesusen gurutzearekin topo egingo dugu. Eta han samina, sufrimendua, Jainkoaren eta hainbat gizon-emakumeen eskaintza isila aurkituko dugu.

2.- ERREINUAREN LEHENTASUNA

- Suaren aldarrikapenak Erreinuaren lehentasuna ohartarazten digu. Jesusek amestu eta aldarrikatutako Erreinuak ezin du gehiago itxaron. Pentekoste garaian jaso genuen Espiritu Santuak eta oraindik etengabe ematen zaigu indar hori Erreinuaren baloreak gauzatzeko dira.
- Bakeak ezin du itxaron, justizia loratu egin behar da eta maitasuna da guztiak egia bihurtzeko giltza. Gerra guztiak dira luzeegiak, inoiz hasi eta sortu behar ez zutelako. Baina, irauten badute, gerrari amaiera emateko arma gehiago hornituz konponduko dela uste badugu, oker gabilta.
- Sua behar da, baina zapalketa bukatzeko. Jesus sua ekartzera etorri da injustiziarekin amaitzeko, gutxien erosotasunak munduko desoreka agortzeko, bizitzak aurrera egin dezan. Baina, horretarako sua piztu behar da. Horretarako etorri baitzen Jesus Jauna.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Jaunari, gure otoitzak entzun ditzan eta lagun diezagun:

- Eska dezagun gaixorik daudelako edota senideen zerbitzura daudelako igandea ospatzera etorri ezin dutenentzat; ospakizun honetan parte hartzerik ez badute ere, Jaunaren poza falta ez dezaten.

- Eska dezagun behartsuenen zerbitzura bizitza eskaintzen dutenentzat; senideekin partekatzen dutena barne-poz eta alaitasun bihur dadin beraiengan
- Eska dezagun bidean edota etxetik urrun direnentzat; Jainkoak babes ditzan eta barne-bizitza zaintzeaz ahaztu ez daitezen.
- Eska dezagun guretzat; fedean aurrera egin dezagun eta on egiteko gogoia gero eta handiagoa izan dadin gugan.

Eztabaida-ikur den Zure Semearen gurutzearen bidez bihotz askoren jarrera agertzen diguzun Jauna, entzun gure otoitzak eta ez utzi gizadiari Zure egiatik eta graziatik aldentzen, baizik eta aldian aldiko ezaugarrietan zu aurki zaitzatela eta salbamen bidean ibili. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Oparigaien gainekoa

Onartu, Jauna, gure dohain hauek;
horien bidez harreman miragarriak ditugu Zurekin;
egizu, Zeuk emandakoak eskainiz,
izan dezagula Zu Zeu hartzeko grazia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, sakramentu honetan Kristorekin bat eginik
zure errukiari deika gaude apalki:
izan gaitezela lur honetan zure Semearen irudikoago,
haren zorion bera izan dezagun zeruan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Abuztuaren 24an

URTEAN ZEHARREKO XXI. IGANDEA

Agurra

Jainko Aitaren eta Jesu Kristo gure Salbatzailearen grazia, errukia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Bizitza betea izateko eskaintza egiten digu Jesusek. Maitasunaren kultura sortu beharrean gaude: elkarriketak, askatasunak eta errespetuak osatu behar du kultura hori, eta kristauok Jesusengan aurkitzen dugu horretarako indarra eta irakaspen argia.

Damu-otoitza

Eska diezaiogun orain, Kristori, errukia eta barkamena:

—Jesus Jauna, gugatik gurutzean hil zinena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, heriotza garaituz Aitak piztua. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, beti gure alde Aitaren ondoan zaudena. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. *Rx*. Amen.

Otoitza

Oi Jainko,
gogo bateko egiten dituzu zeure fededunen bihotzak;
egizu, maita ditzala zure herriak Zuk aginduak
eta itxaro Zuk hitzemaña,
mundu honetako gorabeheren artean,
geure bihotza egiazko zoriona dagoen lekuan jar dezagun.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak bere herriari egindako promesak zoragarriak dira, eta Kristorengan irabaziak ditugu guztiak. Baina nola izan zoriontsu? Errazkeria utzi eta besteekin akordaturaz: Jesusen bidea urratuz.

Lehenengo irakurgaia (Is 66, 18-21)

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Ezagutzen ditut Nik gaiztoen egintzak eta asmoak, eta herri eta hizkuntza orotako jendea biltzera etorriko naiz; haiek etorri eta nire aintza ikusiko dute. Ezaugarri bat emango diet: beraien artean bizirik gelditutako batzuk bidaliko ditut nazioetara; Tarsis, Etiopia eta Lidiara, Mexek, Tubal, Greziara eta urrutiko herrietara, inoiz nire berri izan ez duten eta nire aintzarik ikusi ez dutenengana.

Eta nire aintza iragarriko dute nazioetan. Atzerriko nazio guztietatik ekarriko dituzte, Jaunarentzat opari gisa, zuen senide guztiak; zaldi, gurdi eta ohatiletan, mando eta dromedarioetan ekarriko dituzte Jerusalemgo nire mendi santura –dio Jaunak–, israeldarrek beren opariak Jaunaren etxera ontzi garbietan ekartzen dituzten bezala. Eta haien arteko batzuk ere aukeratuko ditut apaiz eta lebitar izateko –dio Jaunak–».

Erantzun-salmoa (Sal 34 [33], 2-3. 16-17. 18-19. 20-21. 22-23)



Zo-az - te mun-du guz-ti - ra, e-ta ho-tse - gin be-rri o - na.



- ✧. Goretsazue Jauna, nazio **gu**ztiok,
goraipa ezazue, **herri** guztiok. R̃.
- ✧. Sendoa baita guretzat haren mai**ta**suna,
beti-betikoa Jaunaren lei**alt**asuna. R̃.

Bigarren irakurgaia (*Heb 12, 5-7. 11-13*)

Hebrearrei egindako gutunetik

Senideok: Ahaztu egin duzue seme-alabei bezala ematen zaizuen aholkua: «Ene seme, ez baztertu Jaunaren zentzaldia, ezta galdu ere adorea, haserre egiten badizu, maite duena baitu Jaunak zentzarazten eta seme-alabatzat hartzen duena du zigortzen».

Jasaten duzuen zuek zentzarazteko da; Jainkoak seme-alaba bezala tratatzen zaituzte. Izan ere, zein seme nahiz alaba ez du aitak zentzarazten?

Egia esan, edozein zentzabide, momentuan, mingarri da, ez pozgarri; baina, gerora, haren bidez hezitakoei bere fruituak ekartzen dizkie: bakea eta zuzentasuna. Jaso itzazue, beraz, esku eroriak eta belaun ahulduak, eta ibil zaitezte bide zuzenean, herrenaren hanka hautsi ez dadin, sendatu baizik.

Aleluia (*Jn 14, 6*)



- ✧. Ni naiz bidea, egia eta bizia, **di**o Jaunak;
ezin da inor Aitaga**na** joan,
nire bidez **i**zan ezik. R̃.

Ebanjelioa (*Lk 13, 22-30*)**Homiliarako argibideak****0.- ATE ESTUA**

- Ez dago atea baino ezaugarri esanguratsuagorik Jesusen gonbidapena nolakoa den ulertzeko. Historia, gure kondaira, salbamenaren gonbidapena da, doan emango zaiguna. Baina, salbamenaren atea estua da.
- Estutasun honek ez luke gudan halako larritasunik sortu behar, ateko pasabide hau banakakoa delako. Banan bana salbatzen gara eta inor ez da kanpoan geratuko.
- Gaurko ebanjelioaren ate estuko oharrak ez luke atzera utzi behar genukeen erlijio zorrotzaren bidea berriro ireki. Zorrozkeriarik ez, erradikaltasuna bai. Tradizioak zuzen eta argi erakusten digun Jesusen pentsaera nahiko garbia da. Juduen ardura zen, oraingo ustezko erlijioen proposamenaren antzera, zenbat salbatuko ziren. Eta, herri aukeratuaren kontzientzia zutenez, salbamenaren kopurua txikia zen. Noski, beraiek barrura eta, euren sokakoak ez zirenak, kanpora.
- Baina, Jesusek argitzen dien bidea haxe da: salbamina ez da Abrahamen leinukoa izateagatik gertatuko. Jesusek aldarrikatutako Erreinuaren bideak eskatzen duen bihotz berritza da salbamenaren bidea.

1.- MAHAIRA GONBIDATUAK

- Merkataritza-gune bateko beheraldietako hasierako atea irekitzen diren pilaketak ez du Jesusen gonbidapenarekin zerikusirik.
- Ate hau igarotzea ez da Jesusek salatzen duen fariseuen zorrozkeria estu eta itogarria. Ate honetatik aske igaro behar dugu eta honetarako bihotza berritza ezinbestekoa da.

Norbera aldatu eta Jainkoa barnetik nola bizi dugun sinestearen konbertsioa.

- Atea irekitzen denean Jesus datorkigu gure etxeko mahaira eta gu, inor ez bagara ere gugana etortzeko, bere bisitak, bere proposamenak dena alda dezake. Eukaristia da ate honen gonbidapena, igandero gertatzen den mahai honen festa handia.

2.- AZKENEKOAK, LEHENENGO

- Batzar honetara bultzaka sartu direnak lehen postuak hartu nahian, egon daitezela lasai, Jauna etortzean, berrantolatu baitu nor non jarri.
- Jaunaren otordura gara gonbidatuak. Otordua eta ezteiak Jesusen etengabe erabiltzen duen ezaugarria da. Otordu honek Erreinuaren osotasuna adierazten du. Osotasun honetan denak sar daitezten, inor kanpoan gera ez dadin. Baina, otordu honetako atearen antolaketa Jaunari utzi behar diogu. Ez dugu inoiz epaitu behar, hala askotan gertatzen delako, egon behar ez duena hor dagoela.
- Jaunaren seme-alabak gara guztiok eta bere esku utzi behar dugu mahai honen antolaketa, zeruko eta lurreko ateen zabalera. Ez gara guretzat nahi ez dugun besteei neurria hartzen hasiko.
- Erreinua ez da titulu baten bidez lortzen den pribilegioa, Jaunaren eskuetan dagoen dohaina baizik. Gure ahalegin eta zeregina hemengo ateak zabaltzea izango da, inor paperik gabe gera ez dadin, itsas zuloan itota edota, lanik ez dutelako, miseria gorrian. *“Orain azkeneko den zenbait lehenengo izango da”.*

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egilogun Jaunari, gure otoitzak entzun ditzan eta lagun diezagun:

- Jainkoak errukiz zain ditzan Leon Aita Santua, Fernando gure gotzaina eta gure elkarteetan ardura eta zerbitzua duten guztiak.
- Jainkoak eman diezaien lurra lantzen dutenei lanerako indarra, ikertzaileei adimena, ikasleei saiatzeko gogoia eta guztioi geurean irauteko leialtasuna.
- Jainkoak sufritzen duten guztien ezinak entzun ditzan, bereziki lanik gabe eta egoera larrian bizi diren guztienak.
- Jainkoak bere dohainez bete ditzan gure senide, adiskide eta ongile guztiak.

Jainko Jauna, gurutzearen ate estutik Zure erreinuko otorduan sartzera gonbidatzen dituzu gizakiak; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure Espirituaren indarra, Zure Semearen urratsei jarraituz bere aintzaren mahaian parte izan dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Oparigaien gainekoa

Kristoren opari bakarraren bidez, Jauna, zeure seme-alaben herri egin gaituzu; emaiozu onez zeure Elizari batasuna eta bakea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Eraman gudan onez, Jauna, bere betera zeure errukizko salbamen-egintza; egin gaitzazu on-onak eta adoretu, gauza guztietan zure nahia bete ahal izateko. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Abuztuaren 31n

URTEAN ZEHARREKO XXII. IGANDEA

Agurra

Jauna zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristok bildu gaitu Igandean Eukaristi otordua ospatzera: bertan Jainkoaren Hitza eta Jaunaren Gorputza eta Odola izango ditugu janari. Fedearen misterio eder hau ospatzeak lagun diezagula egiaz Jainkoarekin topo egiten, Bere antz eta irudira molda gaitzan.

Damu-otoitza

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garela, bekaturako hilik bizi berrira piztu gaitzen.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren betea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behartsu egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera etorri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Zeru-lurren Jainkoa, Zugandik dator on guztia;
sartu gure bihotzean Zuganako maitasuna;
lot gaitzazu gero eta estuago Zeurekin,
gure baitan indar dezazun on den guztia
eta indartu duzuna arreta handiz zaindu.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R.* Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Apaltasuna gure bizitzako jarrera izatea beharrezkoa dugu, Ebanjelioaren bide xumeak urratzeko. Ez dago lekurik handitasunerako, neurrigabeko ondasunentzako... Txikien eta apalen Jainko da Jesusen Aita eta gure Aita den Jainkoa.

Lehenengo irakurgaia (*Si* 3, 19-21. 30-31 [gr. 17-18. 20. 28-29])

Siraken liburutik

Seme, egin otzantasunez egiten duzun guztia, eta Jainkoaren begiko denak maite izango zaitu. Zenbat eta handiago izan, orduan eta gehiago apaldu zeure burua, eta Jaunaren gogoko izango zara; handia baita Jaunaren ahalmena, eta apalek dute hura goستن.

Harroaren ezbeharrak ez du erremediorik, gaiztakeriaren landarea sustraitua baitu bere baitan. Buruargiak jakinduriatzko esaerak hausnartzen ditu, adi egongo den belarria irrikatzen du jakintsuak

Erantzun-salmoa (*Sal* 68 [67], 4-5ac. 6-7b. 10-11)



Ze- ru ta lu- rren E - gi - le - a, du - gu la-gun
ta zain - tzai - le - a.

- ✠. Zintzoak pozten dira, ‘
 Jainkoaren aurrean bozkariatzen,
 alai eta pozez gainezka.
 Kanta Jainkoari, jo soinua haren izenari,
 Jauna du izena, poztu zaitezte haren aurrean. R̃.
- ✠. Umezurtzen aita da Jainkoa, alargunen defendattzaile
 bere egoitza santutik.
 Jainkoak etxea ematen die baztertuei,
 kanta artean askatasuna presoei. R̃.
- ✠. Euria ugari isuri zenuen, oi Jainko, ‘
 zeure ondare akitua indarberritu.
 Hantxe kokatu zen zure jendea,
 Zuk, ene Jainko, zeure ontasunean
 dohakabeentzat eratutako lurrean. R̃.

Bigarren irakurgaia (*Heb 12, 18-19. 22-24a*)

Hebrearrei egindako gutunetik

Senideok: Zuek ez zarete hurbildu, israeldarrak bezala, uki daitekeen mendi batera, su kiskalgarria, hodei itxia, ilunpea eta ekaitza zeuden mendira; ez duzue entzun turuta-hotsik, ezta ahotsik ere. Ahotsa entzun zuten israeldarrek gehiago ez ziezaiela hitz egin eskatu zuten.

Sion mendira hurbildu zarete zuek, Jainko biziaren hirira, zeruko Jerusalemera, Jainkoa gorestekoa bildurik dauden milaka eta milaka aingerurengana, beren izenak zeruetan idatzirik dituzten lehen-semeen batzarrera, guztien epaile den Jainkoagana, beren helburura iritsi diren zintzoen espirituengana, eta itun berriaren bitarteko den Jesusengana.

Aleluia (*Mt 11, 29ab*)

✂. Hartzazue nire uztarria, dio Jaunak, eta ikasi **N**igandik, gozoa eta bihotz-apala **b**ainaiz. ✂.

Ebanjelioa (*Lk 14, 1. 7-14*)**Homiliarako argibideak****0.- ZENBAT ETA HANDIAGO IZAN, ORDUAN ETA APALAGO**

- Larunbata zen fariseu-buruetako baten bere etxera Jesus gonbidatu zuen eguna. Otordu hau apaltasunaren ikasgaia gertatuko zaigu gaurko ospakizun honetara bildu garenoi eta ohar larria harrokeriaz dabilenari.
- Siraken liburutik egindako lehen irakurgaiak argi eta garbi esan digu: “zenbat eta handiago izan, orduan eta gehiago apaldu zeure burua”. Egia galanta da Jesus jaio aurreko Siraken liburutik entzun duguna!
- Jesusen esaldiak eta ekintzak jakinduria sakonez betetakoa dira. Itun Zaharretik ikasitakoak dira, baina, era berean, ezusteko nobedadea dute Jesusengan. Ez dira hitzak bakarrik, jokabide aske eta berri baten proposamena gertatuko dira. Horregatik, Jesusen bidea Itun Berria da, Jainkoak gurekin egin nahi duen elkartasun berria.

1.- LARUNBATA ZEN

- Jesusen hitzek halako esamesak sortu bazituen, fariseuak zelatan bazebiltzan... hau gutxi balitz, gaurko estanpa larunbatean

gertatuko da. Juduentzat, atsedeen eguna, Jaunaren eguna. Jesusentzat, Jainkoak hitza hartzen duena eta beste bide berri bat irekitzen duen itunaren oroimena.

- Jesusek jartzen duen adibidea salbamenaren gonbidapenaren ezaugarria da gaurko ebanjelioan eta beti: gizakiaren eta Jainkoaren arteko ezteietara gonbidatuak izan gara eta non eseri nahi dugun tokiak adierazten du denen aurrean eta Jainkoaren aurrean, gure apaltasuna edota gure harrokeria.
- Jesusi egindako gonbidapena oinarrian tranpa zen. Baina, iruzur horretatik Jesusek urrezko ikasgaia aterako digu guretzat. Jesus Jauna baita larunbataren nagusia.

2.- BEHARTSUAK GONBIDATU

- Jesusek gonbidapenerako jartzen dituen arau berriak, onar dezagun, gure izaera naturalaren aurkakoak dira. Gure ezkontzetan ez ditugu arrotzak edota pobreak gonbidatzen. Ezkontzara gonbidatuak izan direnak bazkaria ordaintzeko bidesaria jarri behar izaten dute eta hau ere, soziologikoko bada ere, tranpa da.
- Jesusen gonbidapenak doakotasunaren bidea da eta hau gure pentsaeraren aurkako kontrabalioa da.
- Edonola, Jesusen aholkua oso praktikoa da. Ziurrenik, noizbait lotsatan geratu gara behar ez genuen tokian jarri garelako eta, nagusia etorri denean, tokiz aldatu beharrean izan gara. Gizarteko ohore eta distirak alferrik dira Jaunaren aurrean. Berak inork baino hobeto ezagutzen gaitu eta berarekin tranpa txiki hauek ez dute ezertarako balio.
- Ebanjelioaren mezuak izugarrizko gaurkotasuna du gizartearen aurrean. Baina, kanpotik barrura erratza pasatzen hasi aurretik, Eliza berak sakon eta zintzo aztertu beharko luke zeintzuk diren gure balioak, zein den Jesusen hitzen garrantzia eta gure Maisu

apalak eskatutakoa betetzen ari ote garen edota harrokeria nagusitu ote den apaltasuna gure ezaugarria izan beharko lukeen tokian.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: eska diezaiogun Jaunari entzun ditzala deika ari zaion herriaren otoitzak:

- Egigun otoitz mundu zabaleko Eliza gogoan izanik; Jaunak lagun diezaion fedean, esperantzan eta maitasunean hazten.
- Egigun otoitz sufritzen duten guztiak gogoan izanik; kartzelatuek, gaixoez eta etxetik urrun diren guztiek Jaunaren babes eta indarra izan dezaten.
- Egigun otoitz gure senide hildako guztien alde; Jainkoak bere etengabeko errukiz eta beso zabalez onar ditzan.
- Egigun otoitz Eukaristia ospatzen ari garenontzat ere; hemen ospatzen dugunaren fruituak eguneroko jardunean senideen zerbitzura jar ditzagun.

Jainko Jauna, behartsu eta bekatariak itun berriaren otordu pozgarrira gonbidatzen dituzu; entzun gure otoitzak eta egizu gaixoengan eta apalengan zerbitza dezagula Zure Semea, Zure mahaian bildurik elkarren senide garela ezagutu dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx.* Amen.

Oparigaien gainekoa

Eskaintza santu honek, Jauna, ekar diezagula beti zure salbamenaren dohaina,
sakramentuetan irudiz ospatzen duguna
zure indarrak bere betera eraman dezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx.* Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Mahai santuko ogia harturik,
otoitz egiten dizugu, Jauna:
maitasunaren agiria den janari honek
sendo dezala gure bihotza
geure senideengan Zu zerbitza zaitzagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. $\mathcal{R}$. Amen.

Irailaren 7an

URTEAN ZEHARREKO XXIII. IGANDEA

Agurra

Jainko Aitagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik bakea, maitasuna eta sinesmena zuekin.

Sarrerako oharpena

Asteroko pazkoak bildu gaitu Jaunaren eguneko Eukaristian. Haren izenean bildu gara, Berak deitu gaitu. Bataioko egunetik gu Berarengana erakarri nahian ari da, leialago eta gogo handiagoz jarrai diezaiogun.

Damu-otoitza

Hurbil gaitezen Jainko zuzenagana, apalik eta bihotz-damuturik, eta, geure burua bekatarri aitortuz, eska diezaiogun errukia Jainkoari

—Jesus Jauna, galdurik zegoena bilatzera etorri zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guztion erospenerako zeure bizia eman duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zeure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Oi Jainko, Zuk salbatu gaituzu eta zeure seme-alabatzat onartu; begira onbera seme-alaba ordeko egin gaituzunoi, Kristogan sinesten dugunok egiazko askatasuna eta betiko bizia izan ditzagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx.* Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Kristau bidean aurrera egitean, zein aukera egin argitzen zaigu, eta baita horretarako behar ditugun indarrak adierazi ere. Ez gaitzala honek beldurtu.

Lehenengo irakurgaia (*Jkd* 9, 13-19 [gr. 13-18])

Jakinduria liburutik

Zein gizakik ezagut dezake Jainkoaren asmoa? Zeinek ulertu Jaunak nahi duena? Gizaki hilkorron gogoetak kaskarrak dira, gure ideiak ziurtasungabeak. Gure gorputz galkorra arimarentzat zama da, eta lurrezko etxola honek berez pentsakor den espiritua nekarazten du.

Nekez igartzen diegu lurreko gauzei eta kostata aurkitzen irispidean duguna ere. Nork arakatuko ditu, beraz, zerukoak? Nork ezagutuko zukeen zure asmoa, Zeuk eman ez bazenio jakinduria eta zerutik bidali zeure espiritu santua?

Horrela bakarrik izan zen zuzena lurtarren jokabidea, horrela ikasi zuten gizakiek zer duzun atsegin, eta salbatu ziren jakinduriaren bidez.

Erantzun-salmoa (*Sal* 90 [89], 3-4. 5-6. 12-13. 14 eta 17)





- Ț. Gizakia hautsera itzularazten duzu,
 esanez: «Itzuli lehenera, gizakiok».
 Bai, mila urte zure begietan ‘
 atzo igaro zen eguna adina,
 gaualdi bat adina. Ț.
- Ț. Hor daramatzazu gizakiak,
 ametsa bezalaa dira;
 ernetzen dira goizean belarra bezala; ‘
 goizean erne eta loratzen baita,
 arratsaldean zimeldu eta iharten. Ț.
- Ț. Irakatsiezaguzu geure egunen kontua eramaten,
 zuhurtasunaren muinaz jabetu gaitezen.
 Itzul zakizkigu, Jauna! Noiz arte?
 Erruki zaitez zeure zerbitzariez. Ț.
- Ț. Ase gaitzazu goizero zeure maitasasunaz,
 poztu gaitezen eta zoriontsu izan geure egun guztietan.
 Betor gugana Jaunaren, gure Jainkoaren, gozotasuna ‘
 eta sendo beza hark gure eskuen lana;
 sendo dezala, bai, gurea lana. Ț.

Bigarren irakurgaia (*Flm* 9b-10. 12-17)

San Paulo Apostoluak Filemoni egindako gutunetik

Anaia maitea: Nik, Paulok, dagoeneko zahartua eta orain, gainera, Kristo Jesusengatik kartzelan nagoen honek, mesede bat eskatu nahi dizut, kartzelan sortu dudaneure seme Onesimorentzat. Berriror bidaltzen dizut bera, ene bihotz-bihotzeko dudaneu hau.

Neurekin eduki nahi nuen, zure orde zerbitzari izan nezan, Berri Onagatik kartzelan nagoelarik. Hala ere, ez dut zure baimenik gabe ezer egin nahi izan, mesede hori gogoz egin dezazun eta ez behartuta.

Beharbada, horretarako alde egin zizun apur batez, gero betiko har zenezan, eta ez esklabo bezala, esklabo baino zerbait gehiago bezala baizik, anaia maitea bezala. Maite-maitea da niretzat, eta zenbatez maiteago ez ote da izango zuretzat, bai gizon den aldetik eta bai kristau den aldetik. Beraz, fedean adiskide banauzu, hartzazu Onesimo nerau banintz bezala.

Aleluia (*Sal* 119 [118], 135)



Ÿ. Erakutsi aurpegi argia, Jauna, zeure zerbitzari honi, irakatsi zeure arauak. Ÿ.

Ebanjelioa (*Lk* 14, 25-33)

Homiliarako argibideak

0.- JESUSI JARRAITZEKO BALDINTZAK

- Ez dira urte asko kristau elkarte talde handiagoa ginela. Gure ospakizunak fededunetz betetzen ziren. Baina, denbora igaro ahala, adinekoak joan zaizkigu, belaunaldi berriekin lotura sendorik egitea ez dugu lortu eta etena sortu zaigu, fede katearen haustura mingarria.
- Ahuldadearen leialtasun txiki bezain esanguratsuak ez dugu irauten bakarrik, aurrera goaz Jesusek eskainitako lekukoari tokia

eginez, fedea ospatuz, elkartea eraginez, gizarteari zerbitzua eskainiz.

- Baina, onar dezagun egia dela gutxiago garela eta kimu berrien poza falta zaigula.
- Gaurko ebanjelioak Jesusekin jende-talde handia zihoazela esaten digu. Talde soziologikoa, behar bada. Zerbaiten edo norbaiten bila zebilen talde anitza. Batzuk, jakin minez; beste batzuk, berri, mirari baten zain. Besteak, handik probetxuko zerbait aterako zuten esperantzan.

1.- HARTU GURUTZEA

- Baina, Jesusek bi baldintza jarri ditu berarekin etorri nahi duenari: lehenengoa, dituen zuztarrak utzi senide elkartasun berri bat sortzeko. Nolabait esateko, etxeok utzi eta beste etxe bat eraikitzen hasi, Jesusen jarraitzaileen taldea.
- Bigarrenengan koska galanta sortuko da: Jesusi jarraitzea gurutzea hartu eta eramatea da. Zenbaitetan, gehienetan ez esateagatik, norberaren gurutzea izango da. Eta beste batzuetan, ustekabe, bestearen gurutzea arintzen saiatu, Zireneoren antzera.
- Gurutzea eramatea ezinbesteko baldintza gertatuko zaio Jesusen jarraitzaileei. Gurutzea eramateko prest ez dagoena ez da Jesusen taldekoa izateko gai.
- Erraztasun handiegiz indargabetu egin dugu gurutzearen esanahia. Pisutsua eta mingarria dena gozatuz, iskanbila izan zena eta oraindik dena disimulatuz, gure Maisua han erail zutela ahantzaraziz.

2.- ATZERA EZ BEGIRATU

- Halakoa da Jesusen jarraipenaren indarra eta erradikaltasuna atzera begiratzeak ez duela balio. Kontua ez da norberaren historia ahaztea, Jesusen Berri Onak duen aurrera begiratzeko indarra suspertzea.

- Adibide bat jartzeko, zenbaitetan gure pekatuen zama arindu ezinik ibiltzen gara, atzean geratu zen hura libratu ezinik. Eta, nahigabe, iraganaren morroi egiten gara, atzera begira bizi gara.
- Jesusen proposamena aurrera egiteko da, etorkizuna eraikitzeko hartu behar diren arriskuak neurtu eta onartzeko. Horregatik jarri digu Jesusek dorrea eraikitzeko aurrez egin behar diren kalkuluak ateratzeko premia. Oinarriak ondo jarri, zimenduak ondo eraiki eta, horiek ikusten ez badira ere, hortxe izan dezatela ezkutuan dauden eraikin guztiak eusteko indar isila.
- Ebanjelioak bi mila urte ondoren duen erakartasuna gure artean bizi den Jaunaren indarra da eta hau ezin dugu indargabetu, gure ahuleziarengatik ahuldu. Gurutzea eramatea Gurutziltzatuari begiratzea da eta oraindik, egungo historia honetan zintzilik daudenei gure eskuak zabaltzea, askatzeko, libratzeko eta euren zama arintzeko.
- Gutxitu egin garela nabarmena eta begi bistakoa. Ez gara horregatik hobeak, aukeratuak, baina, Jesusek emandako mandatuari men egiten saiatzen garen gizon-emakume hauskorak gara, elkarri gurutzea eramanez mundua arintzen saiatzen direnak. Azkenean, ikasleak baino ez gara!.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: jo dezagun Jaunarengana, gure otoitzak entzun ditzan eskatuz:

- Elizaren alde: Jaunak bakea eta batasuna eman diezazkion eta gaitz guztietatik babesturik Ebanjelioaren zerbitzari leial egin dezan.
- Munduko bakearen alde: gizaki guztien bihotzetan maitasuna eta elkarrenganako ulermena erne daitezen.

—Ezinean, gaixo edota goserik daudenen alde: Jaunaren laguntza eta gure arreta eta esku zabala falta ez dezaten.

—Gaur hemen bilduak gaudenon alde: fedean azkenerarte leial iraunez, egun batean zeruko mahaian ere elkar gaitezen.

Jainko ahalguztidun betierekoa, badakizu lurreko gauzak justu ezagutzen ditugula eta zerukoen aztarren bat jakiteko lan egiten dugula; entzun gure otoitzak eta isur gudan Zure Espirituaren jakinduria, Zure Semearen egiazko ikasle bezala eguneroko gure gurutzea eraman eta, Harekin bat eginik, Bere urratsak leial jarrai ditzagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Oparigaien gainekoa

Oi Jainko, Zu zaitugu

egiazko jainkozaletasunaren eta bakearen iturria;

egizu, dohain honen bidez

aitor dezagula eta goretsi zure handitasuna,

eta sakramentu hau hartzeak

sendo dezala gure arteko elkartasuna.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Hitzaren eta sakramentuaren mahaian

janaritzen eta biziberritzen dituzu, Jauna, zeure fededunak;

zure Semearen dohain handiak balia dakizkigula

haren bizian beti parte izatea merezi dezagun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Irailaren 14ean

URTEAN ZEHARREKO XXIV. IGANDEA

Agurra

Bere mahaian biltzen gaituen Mesias Jauna izan bedi zuekin!

Sarrerako oharpena

Bekatua eta heriotza garaitu dituen Kristo piztua ospatzen dugu igandero. Bere errukia betierekoa delako eta gugana iristen delako, konfiantza osoz gertura gaitezke mahai honetara. Berak ez du errukizko mezua mundura ekarri bakarrik egin, baizik eta adiskidetu egin gaitu betiko Jainko Aitarekin. Hori ospatzen dugu Mezetan.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, bekaturik ez duen gure bitartekoa, otoitzean ari da gure alde eta adiskidetu egiten gaitu Aitarekin. Ireki dezagun, bada, geure espiritua damurako, Jaunaren mahaira hurbiltzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, Pedro damutuari barkamena es**kaini** zeniona: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, lapur onari paradisua ag**in**du zeniona: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, bekatuen barkamenerako apostoluei Espiritu Santua e**man** zeniena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Otoitza

Diren guztien egile eta gidari zaren Jainkoa,
begira iezaguzu eta emaguzu bihotz guztiz Zu zerbitzatzea,
zure errukiaren ondasunak suma ditzagun.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Ebanjelioko paraboletan argi agertuko zaigu nolakoa den Jainkoa: barkatzailea, errukitsua... Gauzak gaizki doazenean, ezin bota diogu errua Jainkoari, geu baikara eman zaigun askatasuna erabilita geure ekintzen arduradun.

Lehenengo irakurgaia (*Ir 32, 7-11. 13-14*)

Irteera liburutik

Egun haietan, Jaunak esan zion Moisesi: «Jaitsi zaitez menditik, bekatu egin baitu Egiptotik atera zenuen zeure herriak. Laster asko okertu dira agindu nien bidetik. Zekor-irudia egin dute, eta haren aurrean ahuspeztu eta opariak eskaini dizkiote, esanez: “Hau da zure jainkoa, Israel, Egiptotik atera zintuena”».

Jaunak esan zion gainera: «Ikusten dut herri hau burugogor dela; uztazu, bada; nire haserrea horien aurka sutu eta suntsitu egingo ditut, eta zugandik herri handi bat sorraraziko dut».

Moisesek, ordea, honela otoitz egin zion Jaunari, bere Jainkoari: «Jauna, nolatan jarriko zara, bada, haserre-sutan, hain ahalmen handiz eta esku indartsuz Egiptotik atera zenuen zeure herri honen aurka?

Gogora itzazu zeure zerbitzariak, Abraham, Isaak eta Israel, eta zeure buruagatik haiei egin zenien zin hau: “Zuen ondorengoak zeruko izarrak bezain ugari egingo ditut, eta agindu dizuedan lurralde hau guztia betiko ondareztat emango diet”».

Hala, Jaunak atzera egin zuen bere herriari egindako mehatxutik.

Erantzun-salmoa (*Sal* 51 [50], 3-4. 12-13. 17 eta 19)

- ✠. Erruki nitaz, ene Jainko, zeure **ma**itasunaz,
suntsitu nire hobena zeure neurrigabeko **gu**pidaz.
Garbi nazazu zeharo neure **er**rutik,
garbitu neure **be**katutik. ✠.
- ✠. Ene Jainko, sortu bihotz gar**bi**a nigan,
berritu arnasa sendoa nire **ba**rnean.
Ez nazazu bota zeure **er**aurretik,
ez kendu niri zeure arnasa **sa** santua. ✠.
- ✠. Ireki, Jauna, nire ezpainak, '
eta nire ahoak iragarriko du zure **go**respena.
Damuz hautsiriko espiritua da '
Jainkoak nahi duen sakrif**iz**ioa;
Zuk ez duzu gutxiesten, **e**ne Jainko,
bihotz hautsia eta **u**mildua. ✠.

Bigarren irakurgaia (*1 Tm* 1, 12-17)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako lehenengo gutunetik

Anaia maitea: Eskerrak ematen dizkiot Kristo Jesus geure Jaunari,
bere apostolu-zerbitzua nire gain uzteko fidagarri aurkitu nauelako
eta indar eman didalako niri, beraren kontra biraolari, pertsegitzaile

eta laidoztatzaile izan nintzen honi; baina nitaz errukitu egin zen Jainkoa, neure sinesgabean ez bainekien zer egiten ari nintzen. Eta gainezka agertu zidan geure Jaunak bere onginahia, Kristo Jesusengan dugun sinesmena eta maitasuna eman ez.

Sinesgarria eta guztiok onartzekoa da doktrina hau: Kristo Jesus bekataria salbatzera etorri zela mundura. Eta inor ez ni baino bekataria; horrexegatik, hain zuzen, iritsi nuen errukia, Jesu Kristok bere pazientzia aurrenik nigan erakutsi zezan eta betiko bizia izateko harengatik sinetsiko zutenentzat eredu izan nendin.

Mendeen Erregeari, beraz, Jainko hilezko, ikusezin eta bakarrari, ospe eta aintza gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Aleluia (Ga 6, 14)



✠. Jainkoa ari zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen, eta guri eman digu adiskidetzearen mezua. ✠.

Ebanjelioa (Lk 15, 1-32 edota laburrago 15, 1-10)

Homiliarako argibideak

0.- ONGI HARTZEN ZITUEN BEKATARIAK

- Jesusen bizitza publiko laburrean bere ingurunea hankaz gora jarri zuen. Behar bada, hobeto esanda, gauzak bere tokira itzuli zituen, duintasuna galdu zuenari atea irekiz, damututakoari besoak zabalduz, errukiaren bide berriak eraikiz.

- Eta hitz eta keinu hauekin Jesusek Jainkoa Aita dela, errukiorra eta eskuzabala. Fariseu eta idazlariak hau legearen gaizki ulertze bat zela esaten zuten. Horregatik agertzen dira gaurko ebanjelioan marmarrean bekatariak ongi hartzen zituelako.
- Urte batzuk igaro dira IHESa zuten haur edo helduei harrera egiteko tokia prestatuz hainbat elkarte erlijiosoek euren etxeko ateak ireki zituztela. Beste ate guztiak beldurrez edota ezjakintasunez ixten zirenean, hauek eskuzabal, etxea eskaini zuten eta eurekin jarri bizilekua.
- Gaur egun pandemia hura kronifikatu da aurrerapen medikoei esker. Baina, ingurura begiratu besterik ez dugu IHESarekin ez, baina ihesi gugana laguntza edo etxe eske datozenen etengabeko eskariak. Orain ere Jesusen jarraitzaileok, ahal dugun neurrian, hor egotea tokatzen zaigu.

1.- ARDI GALDUA

- Ardi galduaren parabolak Jainko Onaren bihotzaren desberdintasuna adierazten du. Askatasunaren teologiak behartsuekiko egin zuen aldarriak desberdintasun hori erakusten zuen. Giza mailan ez du logika handirik laurogeita hemeretziak utzi eta galdu denaren bila joatea.
- Egungo gizarte honek galdu direnak "sakrifikatu" egiten ditu talde handiak iraun dezan, onartu beharreko galera balitz bezala.
- Jainko Onak logika hori hausten du eta galduaren bila irteten da. Hau ez zaigu justua iruditzen galdua neu ez banaiz, noski.
- Jainkoak ez du inor galdutzat ematen, ez gara "deskartatuak", Frantziskok esango zuen moduan. Jaunak ez gaitu alde batera utzi.

2.- DENA EZ DAGO GALDUTA

- Jesusek ez du azpimarratzen galduta dagoenaren estualdia bakarrik, honek sor dezakeen buruhauste edo zalaparta. Ardi

galdua aurkitzean, galdutzat ematen zuen emakumeak zilarrezko txanpona aurkitzen duenean, seme galdua etxera bueltatzen denean poza lehertzen da eta auzokoak bildu, adiskideei deitu eta festa antolatzen da.

- Etxera bueltatzea beti festa gertatzen delako. Elizako ateak beti daude zabalik utzikieriaz, fundamentuzko inongo arrazoirik gabe edota haustura sakon bat izan zutenentzat.
- Eta itzulera hori ospatu egin behar da. Barkamenak damutzearen astindua darama berarekin. Baina, barkamena Jaunaren erruki handiaren festa da dena ez dagoelako galduta.
- Jesusen irakaspen hau ez du seme zaharrenak ulertzen eta, honekin batera, zenbait fededun zintzo eta leialak seme galduaren jokabidea ez dute onartzea, ezta aitaren etxera itzultzeko erabaki sendoa. Eta, seme galduari dion jeloskortasunarekin batera, Jainko Aitaren maitasuna ez dute onartzen, ez dute Jaunaren bihotzaren jokatzeko era ulertu nahi.
- Eskuzabaltasun honek giza logika gainditzen du. Jaunaren ezaugarria doakotasuna da eta honek ez du atzera bueltarik.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Jainkoaren errukiari eta eska diezaioGUN entzun ditzala uste onez egindako otoitzak:

- Elizako arduradun eta zerbitzarien alde: Jaunak bizitza leiala izateko grazia eman diezaien, beraien ministeritzari dagokionez.
- Herrietako arduradunen alde: argitasunez eta arretaz joka dezaten guztien eta bereziki behartsuenen zerbitzuan.
- Gaixo eta ezinduen alde: Jaunak barne-sendotasuna eman diezaien bere minetan itxaropenez bizi daitezen.
- Gure alde, gure etxeko eta adiskideen alde: Jaunak emandako dohain guztiak eskertuz bizi gaitezen beti.

Jainko Jauna, Moisesen otoitzez, Zure maitasunari uko egiten zion herria ez zenuen baztertu; entzun bekatarien alde otoitz egiten duen Moises berriari, Zure Seme Jesu Kristori eta egizu guk ere goza dezagula bekatari bakar bat bihotz-berritzen denean zeruan gozatzen den poza. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Oparigaien gainera

Entzun bihotz onez, Jauna, gure eskariak
eta onartu zeure zerbitzarion eskaintza;
gutako bakoitzak zure izena gorestekoa eskaintzen duen hau
izan dadila gizon-emakumeen salbamenerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, jabe dadila dohain zerutarraren indarra
gure gorputzaz eta arimaz,
gure bizitzan indar hori izan dadin nagusi,
eta ez gure nahia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Irailaren 21ean

URTEAN ZEHARREKO XXV. IGANDEA

Agurra

Aita errukitsua eta Jainko poz-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristoren piztuera oroitzen dugu Igandean; Eukaristian parte hartuz Haren salbamena gugana iristen da. Horregatik, esker onez eta bihotz-berritzeko gogoz garturatzen gara, Kristo izan dadin beti gure bizitzaren erdigune eta ezerk ez gaitzan Berarengandik aldentu.

Damu-otoitza

Senideok: Aitor ditzagun geure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

—Jesus Jauna, bihotz-urratuak salbattera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. R. Amen.

Otoitza

Oi Jainko,

lege nagusi hau eman diguzu agindu guztien oinarri:

Zu eta lagun hurkoa maitatzea;

egizu, zure aginduak betez, hel gaitezela betiko bizira.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean

Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. R. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainko sortzaileak, guztioi berdin eman zigunak, ezin du onartu inolaz ere inongo zapalketarik edota tranparik. Deiadar bat dugu gaur ere Jainkoaren Hitz hau, salaketazko deiadar bat: gaur ere, gure gizartean, badaude zapaltzaileak eta badaude zapalduak.

Lehenengo irakurgaia (Am 8, 4-7)

Amosen Profezia liburutik

Entzun hau zuek, behartsuak zapaldu eta herriko jende xehea hondatzen duzuenok. Zeuen baitan diozue:

«Noiz igaroko ote da ilberri-jaia, garia saltzeko, noiz larunbata, alea salmentan ateratzeko? Neurria txikiagotu eta prezioa handituko dugu, okerreko pisuak erabiliz; gari-zahia ere saldu egingo dugu. Jende xehea diruz erosiko dugu eta behartsuak oinetako pare baten truke».

Jakoben ondorengoen harrogarri den Jaunak zin dagi ez dituela sekula ahaztuko horien egintza gaiztoak.

Erantzun-salmoa (Sal 113 [112], 1-2. 4-6. 7-8)

Po - za - ren po - - zez gai - nez - ka dau - kat nik go - go - a,

Sal - ba - tzai - le dut Jaun - goi - ko - - a.



- ♪. Goretzazue, Jaunaren zerbitzariok,
 goretzi Jaunaren izena.
 Bedeinkatua izan bedi Jaunaren izena,
 orain eta beti. ♪.
- ♪. Jauna herri guztien gainean garai dago,
 haren ospea zerua baino gorago.
 Nor da Jauna gure Jainkoa bezalakorik? ‘
 Gorenean du tronua,
 baina beheratu egiten da, ‘
 zerura eta lurrera begiratzeko. ♪.
- ♪. Gizagaixoa hautsetatik jasotzen du,
 behartsua zaborretatik ateratzten,
 eta handikien artean eserarazten du,
 bere herriko handikien artean. ♪.

Bigarren irakurgaia (1 Tm 2, 1-8)

San Paulo Apostoluak Timoteori egindako lehenengo gutunetik

Anaia maitea: Beste ezer baino lehen, gizaki guztien alde eskari, otoitz, erregu eta esker emateak egiteko eskatzen dizut; baita erregeen eta agintea duten guztien alde ere, modu lasaian eta baketsuan bizi gaitezen, jainkozaletasunez eta duintasunez. Eder eta atsegin zaio hau Jainko gure Salbatzaileari, gizaki guztiak salbatzea eta egia ezagutzera iristea nahi baitu berak.

Izan ere, bakarra da Jainkoa eta bakarra Jainkoaren eta gizon-emakumeen bitartekoa ere: gizon bat, Kristo Jesus, bere burua guztien salbamenerako ordain-saritzat eman zuena. Bere garaian egindako aitormena da hau, eta honetarako egin nau ni Jainkoak

oihulari eta apostolu –egia diot, ez diot gezurrik–, jentilen maisu, berauei sinesmena eta egia irakasteko.

Beraz, gizonezkoek toki guztietan otoitz egin dezaten nahi dut, zerurantz esku garbiak jasoz, haserrerik eta eztabaidarik gabe..

Aleluia (2 Ko 8, 9)



℣. Jesu Kristo, aberats izanik, behartsu egin zen,
bere behartsu izateaz zuek aberats egiteko. ℟.

Ebanjelioa (Mk 9, 30-37)

Homiliarako argibideak

0.- AUSARTAK IZATEKO GONBIDAPENA

- Gaurko ebanjelioak gudan halako zalantza sorrarazi dezake Jesusek ikasleei kontatzen dien parabola entzutean. Badirudi etxezainaren maltzurkeria aintzakotzat hartu behar dugula, tranpa egiteak balio duela.
- Egia esan, bizkor eta ausart jokatu du administrariak bere lanpostua galtzeko arriskuan aurkitu denean. Bere nagusiak tranpata harrapatu du eta honek irtenbide bizkorra bururatu zaionean.
- Jesusek etxezainaren tokian jarri nahi gaitu. Hau estu eta larri aurkitzen denean, soka lepoan duenean erabaki bat hartzen du. Fededuna erabakiaren aurrean aurkitzen da eta ausardia hori eskatzen digu Jesusek. Tranpa eginez bere burua libratu duen

administrariak ausardiak jokatu badu, guri zintzotasunez jokatzea tokatzen zaigu, baina ausardia berberaz.

- Etengabe ikusten ari gara ustelkeria politikan. Lapurretarako eta euren burua aberasteko adorea dutenak guztion onerako erabiliko balukete ekimen hori mundua hobea izango litzateke, ezbairik gabe.
- Horixe era eskatzen zaigu mundu honetan bizi garen fededunoi. Ausardia onerako erabiltzea.

1.- DIRUA MORROI ONA, BAINA NAGUSI TXARRA

- Historia guzti honen erdia betiko kontu zaharra ageri da: dirua. Esaera zahar batek dio: "dirua morroi ona, baina nagusi txarra".
- Dirua beharrezkoa da norbanakoaren duintasuna bermatzeko. Ebanjelioa ez da ekonomia kudeatzeko tratatu bat, baina irizpide etiko garbiak jartzen ditu injustizia eta desoreka nagusitu ez daitezen.
- Ekonomia globalizatu honetan murgilduta gaudenoi Frantzisko Aita Santuak globalizazio gizatiarrago baten alde egin zuen, kultura-aniztasuna errespetatuz eta elkartasuna sustatuko eta alternatiba gisa "maitasunaren zibilizazioa" proposatuz.
- Elkartasuna globalizatuz gero, diruaren erabilpen etiko bat sustatuz, munduaren desoreka iskanbilatsua desagertzeaz egongo litzateke. Hau utopia da, ametsa. Baina egia bihur daitekeen egia izan beharko luke.

2.- BESTE BIZIMODU BAT POSIBLE DA

- Kristauok Jesusen ametsari ezin diogu uko egin. Beste bizimodu bat posible da eta hortxe gaurko Jesusen salaketa garbia: "ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi".
- Jesusen mezu askatzaileak gure bizimodua birplanteatu beharko luke. Gure zilborrari begira mundu honek ez du aurrera egingo, berekoikeria ez da Jesu Kristoren arrastoa jarraitzea.

- Euren bihotza diruaren morrontzan jarri dutenak ez dira aske bizi, kristau izateko oinarrizko balio bat falta zaie: morrontza hori alde batera utzi, diruari eman behar zaion garrantzia eman eta pobreei begira jarri eta zer falta zaien galdetzeko ausardia izan. Horretarako zen Jesusek txalotu zuen etxezainaren kemena.
- Ausardia behar da, baina onerako. Dirua behar dugu, baina ongia egiteko eta desorekak bere onera ekartzeko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin dezagun otoitz gizakien alde eta beraien beharren alde, denek izan dezaten gure maitasunaren laguntza:

- Aita Santuak, gotzainek eta apaizek, zerbitzu jarreraz eta apaltasunez zaindu dezaten beren ardurapeko artaldea.
- Herrietako gobernarien alde: guztien ona bila dezaten, ondasunak banatzen asma dezaten eta denontzat zuzentasuna, ongizatea, bakea eta askatasuna bidera ditzaten.
- Gosea edo bestelako beharrak dituztenen alde, gaixorik eta ezinduta bizi direnen alde, etxetik urrun edota bakardadean daudenen alde.
- Hemen gaudenok, Espiritu Santuaz beterik eta fedean sendotuta on egiten saia gaitezen beti munduaren onerako.

Jainko Jauna, Zu gure Jaun bakar bezala zerbitzatzera deitzen gaituzuna, izan erruki gure giza-ahultasunari eta entzun gure otoitzak; aska gaitzazu ondasunak eduki nahi izatetik eta egizu, gure esku garbiak zerurantz jasoz Zuri atsegin zaizun gorespena eman diezazugula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Oparigaien gainekoa

Hartu, Jauna, bihotz onez zeure herriaren eskaintzak,
fedez aitortzen dugun egia
zerutar sakramentu honen bidez lor dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Indarberritu, Jauna, etengabe zeure laguntzaz
sakramentu honetan janaritu dituzunak;
ospakizunean ez ezik bizitzan ere
zure salbamen-egintzaren fruituak jaso ditzaten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

